

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA

FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HHKO MAISTREN GENERO-ROLEN PERTZEPZIOAREN EBOLUZIOA, BELAUNALDIZ BELAUNALDI.

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Pinto Doval, Iratxe.

ZUZENDARIA: Álvarez Uribe, Amaia.

2020-2021

LABURPENA: Genero-rolei buruz hitz egitean, iraganeko zerbait dela pentsatzen dugu, zoritxarrez gaur egun oraindik existitzen direla ohartu gabe. Hala ere, argi dago hamarkadetan rol horiek aldatzen joan direla, onerako nahiz txarrerako. Beraz, Gradu Bukaerako Lan honetan, ikerketa narratiboaren eta adin, herri, hiri eta ikastetxe desberdinetako irakasleei egindako elkarrizketen bidez, desberdintasunak azter daitezke. Guztira 28-57 urte bitarteko 9 irakaslek parte hartu dute eta irakasle bakoitzaren datu eta adierazpen esanguratsuenak bildu eta besteekin konparatzean oinarritu da ikerketa hau, eta esan beharra dago denboran zeharreko aldaketa horiek ez direla izan oso nabariak irakasle horien artean, nahiz eta belaunaldi desberdinetakoak izan, pentsamendu antzekoak izan dituztelako denek. Elkarrizketetatik ateratako informazio praktikoaz gain, gai horri buruz adituek argitalpenetan eraikitako teoria ere agertuko da, adibidez, ikertu egin da gizartea aldatzen joan izan den heinean, genero-rol batzuk murriztuz joan direla.

Hitz gakoak: Generoa, Haur Hezkuntza, genero-rolak, belaunaldiak, ikerketa narratiboa.

RESUMEN: Al hablar de roles de género, siempre pensamos como si fuese algo del pasado, sin ser conscientes de que, desgraciadamente, hoy en día siguen existiendo. Aun así, está claro que durante las décadas ese tipo de roles van cambiando, sea para bien o para mal. Por lo que, en este Trabajo de Fin de Grado, por medio de la investigación narrativa y un cuestionario realizado mediante una entrevista a diferentes profesoras de diferentes edades, pueblos y ciudades y colegios, se pueden examinar las diferencias. En total han participado 9 maestros/as de entre 28 y 57 años y se basa en recoger los datos y frases más curiosos de cada profesora y compararlo con las demás, y he de decir que esas diferencias no han sido muy evidentes entre las profesoras, a pesar de ser de generaciones diferentes, han tenido pensamientos parecidos. Además de la práctica, también aparecerá la teoría que han aportado diferentes autores sobre este tema, como por ejemplo, se ha investigado que a medida que la sociedad ha ido cambiando, algunos roles de género se han ido disminuyendo.

Palabras clave: Género, Educación Infantil, roles de género, generaciones, investigación narrativa.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. MARKO TEORIKOA.....	5
2.1. Urteak atzeraka.....	5
2.2. Tradizioa.....	6
2.3. GENEROA.....	6
2.3.1. Genero-rolak.....	7
2.3.2. Genero estereotipoak.....	7
2.3.3. Eraketa.....	8
2.4. Feminismoa.....	9
2.5. Emakumearen papera.....	10
2.6. Parte-hartzea.....	11
2.7. Ekitatetik irakasten jakitea.....	12
2.8. Hezkidetzatza.....	13
2.9. Haur Hezkuntza.....	13
3. METODOLOGIA.....	15
a. Testuingurua eta parte-hartzaileak.....	15
b. Tresnak.....	16
c. Prozesua.....	17
d. Helburuak.....	18
4. EMAITZAK.....	19
a. Genero-rolen definizioak.....	19
b. Genero-rolen adibide batzuk.....	20
c. Genero rolekiko ikuspuntu pertsonalaren bilakaera.....	20
d. Klasean hurrekin egindako genero-rolen lanketa.....	21

e.	Desoreka eta biolentzia ez eragiteko moduak.....	22
f.	HHko irakaslearen genero rolei buruzko prestakuntza.....	22
g.	Adin desberdinetako lankideen pertzepzioak.....	23
h.	Eskolaren inplikazioa.....	24
i.	Nahikoa da? Aldaketak egin behar dira?.....	24
j.	Belaunaldiak azterketa eta konparaketa.....	25
5.	ONDORIOAK.....	26
6.	MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	28
7.	ERREFERENTZIAK.....	30
8.	ERANSKINAK.....	35
a.	1. Elkarrizketa.....	35
b.	2. Elkarrizketa.....	39
c.	3. Elkarrizketa.....	44
d.	4. Elkarrizketa.....	48
e.	5. Elkarrizketa.....	52
f.	6. Elkarrizketa.....	56
g.	7. Elkarrizketa.....	60
h.	8. Elkarrizketa.....	62
i.	9. Elkarrizketa.....	65

1. SARRERA

Lan honen bidez, Haur Hezkuntzarekin zerikusia duen *genero-rolen ikuspuntua* azken urteotan aldatu egin den ala ez ikusi nahi da. Horretarako, Haur Hezkuntzako irakasle batzuen elkarrizketak kontuan hartuko dira eboluzio hori gertatu den jakiteko.

Jaymek (Jayme, 1999 in García-Prieto eta Arriazu-Muñoz, 2020) dioenez, identitatearen eraikuntza bizitzaren bigarren urtean zehar garatzen hasten da, eta prozesu horretan eskolak zein familiak garrantzi handia dute (Capdevilla, 2014; Rodríguez, Hernández, eta Peña, 2004 in García-Prieto eta Arriazu-Muñoz, 2020) eta bi eremu horietan ikasten hasten dira rol sozialak, imitazioz. Horregatik garrantzitsua da gizartean barneratuta dauden rol baztertzailak saihestea; beraz, Hernández Moralesek eta Jaramillok (2003) dioten bezala, ez da eskola eta familien arteko harremana bereizi behar eta haien arteko elkarlana sustatu behar da. Nahiz eta horiek testuinguru hezigarri desberdinak izan, esan bezala, biak ezinbestekoak dira haurren balioak eta kritikotasuna garatzeko.

Gai hau egiteko erabakia hartu nuen horretaz gehiago ikasi nahi dudalako, eta aukera ezinhobea delako ikerketa bat egitea eta besteen proposamenak eta esperientziak ezagutzeko. Horregatik lan hau teorikoa zein praktikoa izan dela esan daiteke, gaira modu desberdinetan hurbildu naizelako.

Hasteko, aditu batzuek argitaratu duten teoria kontuan hartu eta sakondu egin da, gero hortik abiatuta, lana atal praktikora eramán da, gaia teorikoki ezagututa elkarrizketak egitean erraztasuna izateko. Arestian aipatu bezala irakasleekin elkarrizketa horiek gauzatzeko metodoa online elkartzea izan da. Grabagailu baten bidez, elkarrizketa horiek transkribatzeko aukera egon da, eta bestalde, oharrak hartu dira, adierazpen esanguratsuenak idatziz. Bigarren zatian, elkarrizketa horiek eman dituzten emaitzak eta ondorioak azalduko dira. Amaitzeko, lan hau gauzatzeko erabili diren erreferentzia bibliografikoak aipatuko dira, eta azkenengo zatian, eranskinak daude, hau da, izandako elkarrizketen transkripzioak.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Urteak atzeraka...

Iraganeko garaiak eta gaur egungo egoera alderatuta, badirudi gauzak aldatuz joan direla **belaualdiz belaualdi**, eta hipotesi horretan datza lan hau. Hasteko, XVIII. mendean emakumeek eta gizonek ekintza eta erabilera sozial desberdinak zituzten; hortaz, jasotzen zuten hezkuntza ere desberdina zen; hau da, gizon eta emakumeen arteko balioespina oso desberdina zen. Tradizionalki, emakumeak gutxiagotasunaren baitan eta gizartearen mendeko rolean jarri dira, zaintza, babesa eta familia arloak haiei esleitzeaz aparte (Magallón, 2008).

I. Mundu Gerra aurretik, emakumearen gizarte-onarpena bi kontzepturen arabera baino ez zen gertatzen: espazio pribatua eta gizonaren alteritatea. Bernad, Mut eta Fernández-en (2013) esanetan, Gerra Handiak (Europa, 1914-1918) emakumeentzat **etxeko gunetik ateratzea** ekarri zuen, lubakietara joan ondoren gizonek utzi zituzten lanpostuak betetzeko. Horren ondorioz, emakumeek tradizioz gizonezkoenak ziren lanak egin zituzten, hala nola kamioiak edo autobusak gidatu, armak muntatu eta gai arriskutsuak manipulatu. Baina emakumeek ere lehen lerroan bizi izan zuten borroka, ospitale militarretan zerbitzatzeko, boluntarioak izateko edo frontean zeuden bestelako lan batzuk egiteko. XX. mendea emakumearen mendea izan zen, XIX. mendean sustraituta zeuden kateak hautsi ondoren (emakumeak esparru pribatu eta familiarra lotzen zituena eta beren rol sumisoa naturalizat jotzen zuena).

Krisi ekonomiko eta sozialak dimentsio berria eman zion emakumeen lanari, eta aldi berean, emakumeen parte-hartze ekonomiko eta politiko berriak sortu ziren haren ondorioz. **1970eko hamarkadan**, emakumetzat hartzen zen generoaren ezaugarriak prozesu indibidual eta sozial ez-naturalizat jotzen ziren. **1980ko hamarkadan**, generoa modu akademikoan finkatu zen gizarte-zientzietan, eta sexu-desberdintasunen forma, interpretazio, sinbolizazio eta antolamendu askotan erabiltzen hasi zen, beti ere bere zilegitasun akademikoaren bila. **1990eko hamarkadan** genero terminoaren erabilera zabaldu egin zen eta gero eta gehiago lotu zitzairen genero-berdintasunari buruzko diskurtso politikoei, alde batetik, eta beste alde batetik, femeninitasuna eta maskulinitasunaren deseraiketari begirakoak aztertzen hasi ziren. Lamasek dio (2006, in García-Peña, 2016) bere erabilera moda intelektual eta politiko bihurtu zela, eta generoaren lau funtzio bereizi zituela: lehenik, gogoeta eta eztabaida teorikoen ekoizpen akademiko gisa; bigarrenik, gizon eta emakumeen arteko harremanei buruzko gai puntualei buruzko azterlan gisa; hirugarrenik,

emakumeen lan- eta hezkuntza-mendekotasuna konpondu nahi zuten programa eta politika publiko gisa; eta, laugarrenik, genero-ikuspegia aztertzekeo prozesu gisa.

2.2. Tradizioa

Tradizioan sartuta, familiaz hitz egitean, eredu tradizionalista dator burura, haurrak dituen bikote heterosexuala oinarri duena, alegia. Eta bikote-harremanei dagokienez ere gauza bera gertatzen da, ezkondata dauden senar-emazteak dira jarraitu beharreko eredu. Gizarte bakoitzaren eraginez, ohikotzat hartu izan dira komentario, jarrera eta ekintza batzuk, eta hori dela eta, barneratzen joan dira.

Nerea Elustondok dioen bezala, “Jaso dugun tradizio guztia maskulinoa da” (Elustondo, 2014 in Zinkunegi, 2015). Genero ideologia tradizionalistari egiten zaio erreferentzia, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak aztertzen direnean. Honen arabera, emakumeak beheragokotzat jotzen dira, ahulak eta babes premia dutenak, eta familiarekin eta eremu pribatuarekin zerikusia duten lanak ematen zaizkie. Aitzitik, gizona arduratzen da emakumea babesteaz, erabakiak hartzeaz eta eremu publikoan eta kanpoan jarduteaz. Aspalditik egon da sexuaren araberako lan-banaketa bat, hots, batzuek eta besteek egin behar dituzten jarduerak bereiztea eta izango duten boterea ere desberdintzea, sexuaren araberako espazioak esleituz eta haien balio soziala desberdinduz (Elosegui, 1998).

2.3. GENEROA

Jarraituz, **prozesu historiko patriarkal eta tradizionallean**, gizona izatez ekintzaile eta eraikitzaile bezala agertu izan da, eta emakumea, aldiz, afektibo eta begirale bezala. **Genero terminoari** dagokionez, hainbat adituk esandakoa aipatu behar da. Hasteko, Simone de Beauvoir-ek (1949, in Claveria, 2018) dio emakumeen ezaugarriak ez direla genetikoak, baizik eta hezkuntza eta sozializazioaren fruitu, hau da, emakumea produktu bat dela, sozialki sortua izan dena. Iritzi hori beste hainbatek ere izan zuten; hala nola, Joan Wallach Scottek (1990, in Amurrio, 2001) generoa harreman sozialen osagai eta botere-harremanen era primario gisa ulertzen du eta generoa haien gain eraikiak dauden itzaropen eta jarreraren multzoa da; hau da, sexuaren gainean sortu den eraikuntza soziala (Colás, 2007). Halaber, Coll-Planasek esan bezala (2013, in Gorrotxategi eta Álvarez-Uria, 2017) generoak erreferentzia egiten die sozializazioaren bitartez pertsoneri beraien sexuan oinarrituta esleitzen zaizkien rol jakinei eta honen ondorioz jokatu behar diren jarrera eta jokaera konkretuei.

Bestalde, Sandra Hardingen iritziz (1981, in Amurrio, 2001), generoa prozesu bat da, ez gizabanakoen ezaugarri bat.

2.3.1. Genero-rolak

Pierre Bourdieu-ren (2000) arabera, sexu desberdintasunak emakumeei eta gizonei rol zehatzak esleitu eta bizitzeko modu zurrunik nahiz gizartearen eta munduaren beraren ikusmoldeak ezartzen dizkie. **Genero rolak** sexu bakoitzak bete behar dituen funtzio eta ekintzak adierazten ditu; hau da, gizarteak sexu bakoitzarentzat onartzen dituen arau sozial eta jarrerak, horiek genero desberdintasunen sorburua bihurtuz. Rol horiek estigma soziokulturalak dira, belaunaldiz belaunaldi transmititu izan direnak eta horiek barneratzen hasten dira bizitzaren lehen urteetatik. Jaiotzean, haurrari genero bat esleitzen zaio bere genitalak kontuan harturik, eta hori dela eta, trataera desberdina jasotzen dute. Esleipen automatiko horren ondorioz, generoaren arauak betetzen ez dituzten haurrek bazterketa jasaten dute eta askotan inguruko helduek ere jarrera desegokiak izaten dituzte haiekiko (Gorrotxategi eta Álvarez-Uria, 2017).

Esan bezala, gizabanakoak, bere jaiotzatik bertatik, sozializazio-prozesu desberdinak jasaten ditu, mezu estereotipatuez beteak, non identitatea eta genero-estereotipoak gizartean onartutako araudiari jarraituz modulatu dituzten. Haurrak jaiotzen direnetik mutil eta nesken arteko desberdintasunak hautematen hasten dira eta oharkabean ideia horiek barneratuz joaten dira (Lewis, 1984 in Sánchez, 2009), gero horiek erreproduzitzen. Esan daiteke gizarteak islatzen duenaren eraginpean daudela haurrak. Hori guztia kontuan hartuta, sozializazioa genero-rolen osaketan faktore gakoa dela baieztatu dezakegu.

Ser mujer es cumplir con los mandatos que nuestra cultura establece como normativos, como normales, realizar lo que se espera de nosotras. Nacer con vagina determina que tengamos que vivir dentro de lo que se consideran que son las cualidades, los roles y la estética de lo que nos dice que debe ser la mujer (Towanda Rebels, 2018: 28-29).

2.3.2. Genero-estereotipoak

Horrekin batera, **genero estereotipoak** oraindik ere badira. Genero-estereotipoez hitz egiten denean, pertsonen beren sexu-atxikipenaren arabera esleitzen zaizkien ideia simple, aurretiazko eta ausazko multzoak ari da. Horrela, beren izaerari, nortasunari, eta portaerari gizarte-rolari buruzko ezaugarri definitzaileak preskribatzen zaizkie. Genero-preskripzio hauek ideologia patriarkalaren

mekanismo aktibatzaile gisa jokatzen dute (Bernad, 2010). Bestetik, genero-estereotipoek gizon edo emakume izateak esan nahi duenari buruzko sinesmen, pentsamendu edo irudikapenen multzoari egiten diote erreferentzia eta hainbat arlotan eragiten dute: itxura fisikoa, interesak, ezaugarri psikologikoak, gizarte-harremanak, pentsatzeko, hautemateko eta sentitzeko moduak, lanbideak eta abar (Bustos, 2004). Haurtzaroan, sozializazio-prozesuan hasten dira estereotipo gehienak behatzen, atzematen eta barneratzen.

2.3.3. Eraketa

Genero-estereotipoak **eratzeko**, honako hauek erabiltzen dira: besteekiko harremanak, elkarri eragiten dioten egoerak, elkarrekintzaren egitura hierarkikoak, sortzen diren ikurrak, egiten diren interpretazioak eta beste pertsona batzuekiko eta gizarte-ingurunearekiko elkarrekintza horiei ematen zaizkien esanahiak (Carabaña eta Espinosa, 1978, in García-Prieto eta Arriazu-Muñoz, 2020). Hortaz, estereotipoek eragin zuzena dute haurren jarreran besteekin harremanak izateko orduan. Hurrek, oro har, genero-ideologia tradizionala jasotzen dute, gizonei eta emakumeei esleitu izan zaizkien estereotipoetan eta genero-roletan oinarritutakoa, hau da, neskek eta mutilek izan ohi dituzten ezaugarri fisikoak eta gaitasun kognitibo femeninoak edo maskulinoak. Gainera, genero bakoitzerako aurrez ezarritako estereotipoetatik aldenduz gero, marjinazio- edo bullying-egoerak sor daitezke. Hezitzaileen aldetik, funtsezkoa da estereotipo horietan arreta jartzea, ez iraunarazteko eta generoen arteko desberdintasunak murrizteko lanean jarraitzeko. “Los estereotipos no tienen que ver con la naturaleza humana, sino que son culturales, se han ido construyendo y evolucionando a lo largo de la historia” (Mayo, 2019: 12).

Bestalde, betidanik ikusitako **komunikabideak**, estereotipo eta rol batzuk ere islatzen joan dira. Horien hizkuntzak eragina izan du generoari buruzko kontzientzia hartzerako momentuan. Adibidez, ematen diren irudiak izugarri kaltegarriak dira haurren nortasuna eratzeko, eta mezu inkontziente bat igortzen dute, sistematikoki modu desorekatuan eta diskriminatzailean tratatzen dituen emakumeak (Valera eta Paterna, 2016).

Esan bezala, **genero identitatearen eraketa** haurtzaroan hasten da, familia inguruan batez ere (Andrade eta Arboleda, 2001, in García-Prieto eta Arriazu-Muñoz, 2020), haurrak bere buruaren kontzeptua garatzen eta bere gorputza deskubritu eta honekiko jarrera bat hartzen. Bere genero-identitatea eraikitzen da, baina pertsonaren genero rolaen identitatea gizarteak mugatzen eta definitzen du, emakumeak bere sentimenduak eta mendekotasuna adieraztera bultzatuak diren bitartean, gizonen kasuan, ordea, arrazoia eta indarra adieraztera bultzatzen da. Haurtzarotik hurrek

ikasi eta barneratzen dute mutila izateak abantaila batzuk dakartzala. Modu honetan, mutilek neskekiko identifikazioa gutxien dute, eta neskek gizarteak esleitutako rolak onartzen ikasten hasten dira (Subirats, 2017). Bestalde, Fullerrekin (2012) esan bezala, norberak besteekiko interakzioaren bidez definitzen du bere burua, hau da, sozializazioaren bidez. Towanda Rebelsen aburuz, "No es fácil ver que las cosas pueden ser de otra manera si te enseñan una única forma posible de ser y de hacer" (2018:11).

Sozializazioari dagokionez, esan dezakegu gizartean onartuak dauden pentsamendu eta jarrera ereduak ikasteko bidea dela (Arenas, 2006; Martínez eta Ramírez, 2017; Subirats, 2016, in León, Tsvintarnaia, Martínez eta Gamito, 2020). Maccobyren (1998) ustez, hurrek denbora gehiago ematen dute bere sexu berdineko gelakideekin, eta desberdintasun horiek ere nabariak dira 3. urtean, hainbeste non jolasetan ere eragina duten. Hortaz, hurrek kezka dituzte ez dakitelako nola komunikatu daitezkeen beste generoko pertsonekin eta uste dute besteek haiekiko iritzi eta ikuspuntu desberdinak izango dituztela. Bestalde, bi generoen arteko interakzio sozialetan konfiantza izateak garrantzi handia hartzen du eta eskolan dauzkaten esperientzia eta bizipen positiboekin lotura du. "Las diferencias no son genéticas, sino que las adquirimos en el proceso de socialización, nos las inculca la cultura a la que pertenecemos" (Towanda Rebels, 2018:28).

2.4. Feminismoa

Era berean, **feminismo** hitzak ere garrantzi handia hartu du denborarekin. Simone de Beauvoir-en esanetan, "El feminismo es una forma de vivir individualmente y luchar colectivamente" (in Claveria, 2018: 13). Claveriak (2018) aipatzen duen bezala, feminismoa gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasun formala defendatzetik harago doa: benetan aldarrikatzen duena da emakumeak eta gizonak berdin tratatzea eta berdin baloratzea. Hau da, berdintasun eraginkorra lortzea, guztiek aukera berdinak izan ditzaten gustuak, interesak, lan-ibilbidea edo ospea garatzeko; berdintzat har ditzaten etxean, lanean edo kalean. Azken batean, feminismoa teoria politikoa da, eta mugimendu aktibista, generoak ez duela bizitza baldintzatu behar defendatzen duena. Bestalde, maskulinitasuna eta feminitatea gizarteak eraikitako genero-rolak dira eta ez dute biologiarekin zerikusirik. Hala ere, oraindik badago jendea feminismoa eta matxismoa antonimotzat hartzen dituenak; hau da, feminismoak emakumeen gizonen gainetik nagusitasunaren alde egiten duela uste dutenak.

Horrekin batera, **patriarkatuaz** hitz egin behar da. Honi dagokionez, aipatu beharra dago *Política sexual* liburua, Kate Milletek idatzitakoa 1970ean. Bertan Milletek aipatzen du patriarkatua gizonen menderatze-sistema bat dela, emakumeen zapalkuntza eta menderakuntza errazten duena.

Horretan ere, Heidi Hartmanek bere iritzia ematen du, esanez patriarkatua, funtsean, gizona emakumea baino handiagoa izatearen printzipioa dela, eta gizonek emakumeak zapaltzen dituen gizarte-egituran oinarritzen dela. Beraz, berriro feminismoa aipatuko da eta bere definizioa osatu esanez, horren helburu nagusia patriarkatua akabatzea dela, gizarte-sistema horrek iraunarazten baititu gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-harremanak eta horren ondoriozko zapalketa eta biolentzia.

2.5. Emakumearen papera

Denboran zehar, **emakumeak** era askotara bizi izan dira. Historia propioa, konplexua, askotarikoa eta kontraesankorra dute, eta analisi baten bidez soilik uler daiteke haien zapalkuntza; analisi horrek emakumeen esperientzia espezifikoa prozesu historiko globalekin lotzen ditu. García-Peña (2016) dion bezala, emakumeak ardatz dituen ezagutza historikoa bestelako planteamendu metodologikoa eskatzen ditu etengabe berritzen ari direnak, baina diziplina historikoaren tradizioekin haustura nabarmenik ez dutenak. Prozesu berritzailea da emakumeen historia. Gerda Lerner-ek (1979, in García-Peña, 2016) ezartzen du emakumeak munduko populazioaren erdia edo gehiago izan direla beti, eta horregatik aipatzen ditu emakumeak gehiago gisa, esperientzia historikoaren eremu guztietan egon direla uste baitu, batzuetan beste batzuetan baino presentzia handiagoarekin. Hala ere, historia ofizialaren arabera, gizarte-talde gisa oso gutxitan bihurtu dira emakumeak prozesu iraultzaileen aitzindari, eta instituzioen eta botere formalaren zentroetatik urrun daude, batez ere gizonen santutegietatik: eremu erlijiosotik, militarretik eta politikotik (Duby eta Perrot, 1991, in García-Peña, 2016).

Diana Fernándezek (2018) aipatu bezala, zenbait debekuk XIX. mendean hasi eta XX. mendearen erdialdera arte eragina izan zuten emakumeengan. Horien artean: **botoa emateko eskubidea**; emakumeen botoa historia modernoan eta mendebaldean lehen aldiz Zelanda Berrian lortu zen 1893an; ondoren, Finlandia, Norvegia eta beste batzuk etorri ziren. Erresuma Batuak 1918an lortu zuen, baina 30 urtetik gorako emakumeentzat soilik. Latinoamerikan herrialde aitzindaria Uruguai izan zen, 1927ko uztailaren 3an eskuratu zuten boto eskubidea bertan. Espainian, emakumeak 1933an hasi ziren bozkatzeko (Diana Fernández, 2018).

Dibortziatu ahal izatea; kasu batzuetan, emakumeek senarraren partez tratatu txar fisikoak edo adulterioa gertatu zirela probatu behar izaten zuten dibortzioa lortzeko, eta adulterioak pisu handiagoa zuen legean. Harreman behartuak onartzen ziren ezkonduetakoen artean, senarrak nahi zuenean izan behar zuten sexu-harremana, emazteak nahi ala nahi ez. 1914ra arte, dibortzioa

eskandalu handia zen eta ondoren emakumea iraintzea etortzen zen. 1923ko Ezkontza-Kausen Legeak aukera eman zien emakumeei dibortzioa eskatzeko ezkontidearen adulterioa probatzat izanez gero. Ordura arte, gizonek baino ezin zuten hori egin, eta **bere ondasunak administratzea**; demanda judizial bat jarri edo kontratuetan parte hartzeko aukera ez da beti emakumeen esku egon. Herentzia bidezkoa izan arren, ez zuten horretarako aukerarik senarrak ez bazuen hura erreklamatzeko baimenik ematen. Amerikako Estatu Batuetan, adibidez, eskubide horiek lehen aldiz eman zitzaizkien ezkontutako emakumeei 1848an, New Yorken Emakume Ezkontuen Jabetzaren Legea onartu zenean (Fernández, 2018).

2.6. Parte-hartzea

Bizitzaren lehenengo urteetan, garrantzi handia du **familiaren zein eskolaren parte-hartzeak**, haurrek helduengandik ikasten baitute. Guraso eta irakasleen jarrerak, espektatibak eta aipamenak erabakigarriak dira; azken finean, haurrek ideia horiek guztiak zein gizartearen bestelako iturrietatik datozenak (telebistan, kalean...) jaso eta pixkanaka barneratzen dituzte genero bakoitzari lotutako hainbat ezaugarri konkretu erraz bereganatuz (Colás eta Jiménez, 2006, in Gorrotxategi eta Álvarez-Uria, 2017). Eskolak eta familiak bat egin behar dute estereotipo sexistarik gabeko hezkuntza batean, non neskek eta mutilek aukera eta eskubide berberak dituzten. Salinasek eta Leonak (2016) diotenaren arabera, haurtzaroko hastapenetatik desberdintasunean eta botere harremanean oinarritzen diren sozializazio ereduak bermatzen ditu eskolak. Halaber, hezkuntzak molde sozialak eta kulturalak erreproduzitzen ditu oraindik eta denontzako da beharrezkoa jarrera, balio eta estereotipoak desikastea eta ikasketa prozesu berriei ekitea eta, hala, erreferente eta ikuspuntu anitzak plazaratzea (Castillo eta Gamboa, 2013; García, 2017, Martínez eta Ramirez, 2017; Subirats, 2016; Tomé, 2008; Warner, 1993 in León, Tsvintarnaia, Martínez eta Gamito, 2020).

Adin horietan ekiten zaio sexu eta genero nortasuna eraikitzeari, eta gizarteak ezarritako arauak barneratzen dira, gizon edo emakume izatearen ondorio ezinbestekoak direlakoan. Horrenbestez, premiazkoa da haurra hartuko duen eskolak, esku-hartze hezitzailearen plangintza egitean, sexualitatea bizitzeko aukera ematea eta bizipen horren haria nork bere burua deskubritzea, jakin-mina, topaketa eta gozamena izatea (237/2015 Dekretua, 28-29. or.). Familia eta eskola batzuetan ari dira formakuntzak egiten edota bere burua formatzen gaur egungo haurrak gizonak eta emakumeak izan daitezen bihar, balio demokratikoekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta herritartasun kritikoarekin, duintasunez, erantzukizunez eta askatasunez bizi ahal izateko (Mayo, 2019: 7). Hala ere, prozesu luzea da eta pausoka ibili behar da.

Aurrekoa kontuan hartuta, eskola hezkidetzailleak bi sexuen arteko berdintasuna bilatzen du. Hala ere, Tomé-k (2008, in León, Tsvintarnaia, Martínez eta Gamito, 2020) aipatzen du **hezkuntza sistema** oraindik ez dela konprometitu funtsezko paper bat jokatzeko genero berdintasunaren mesedetan; hau da, eskolan haurrei ateak itxi egiten zaizkie, zabaldu beharrean. Sistemak bi genero behar dituzenez, eskolak hori bermatu eta horren arabera haurrak moldatu egiten ditu. Hortaz, Morianak (2017, in León, Tsvintarnaia, Martínez eta Gamito, 2020) dio eskolak eredu mistoa (neska eta mutilak batera daudenean) izan ordez, eredu hezkidetzaille bat izan beharko lukeela, genero indarkeria saihesteko. Hezkuntzaren helburu nagusia da haurrei eta gazteei prestakuntza osoa ematea, beren nortasuna eta funtsezko identitatea osatzeko, eta errealitatearen ikuskera bat eraikitzea, haurraren ezagutza eta balorazio etiko eta morala bateratuko dituen. Hezkuntzak aukera ematen du bereizkeriaren eta desberdintasunaren aurkako borrokan aurrera egiteko, horiek dira jaiotza, arraza, sexua, erlijioa eta iritzia eremuetan gertatzen direnak (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Lege Organikoa, 1990, 28927.or.). Hala ere, askotan zaila egiten da xede horren alde jotzea eta eskola askok ez dute egiten.

Horrenbestez, dagoeneko aipatu bezala, **dinamizatzailearen irudia** funtsezkoa da proposamen horiek modu eraginkorrean ezartzeko, eta, ondorioz, hezitzaileen parte-hartzea eta prestakuntza espezifikoa bermatu behar dira. Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzeko, hezitzaileek, haurrak genero-berdintasunean hezi behar dituzte, eta egungo gizartean genero-estereotipoen erreproduzioak duen garrantziaz eta sortzen duen diskriminazio eta biolentziaz jabetu. Halaber, jendartearen egon daitezkeen desberdintasunak errespetatzen irakatsi behar dituzte (Álvarez, Vizcarra eta Lasarte, 2019).

2.7. Ekitatetik irakasten jakitea

Araoak nabarmenak direnean eta derrigorrez "kasuari" heldu behar zaionean, orduan egiten dira lanketak. Joera hori aldatzeko, **ekitatetik irakasten jakitea** ezinbestekoa da; hau da, ikasleen artean kritikotasuna lantzea praktika sexista guztiak ekiditeko (Espín, 2006, in Sonlleba, Martínez, Barba-Martín, 2019), adibidez, ekitate hori bultzatzen ez duen material didaktikoa saihestu daiteke. Aldaketa hori Haur Hezkuntzako lehen zikloetan egiten hasi behar da, bestela berandu izan daiteke (Trujillo, 2015). Horretarako, eskolek eta bertako irakasleek prestakuntza bat izatea beharrezkoa da, familiekin batera lan egiteko asmoz beti.

Beraz, oso garrantzitsua da estereotipo eta rol horiek saihestea, edo behintzat, murrizten joatea. Hori lortzeko, ohartu behar da ezin direla ideia, balio edota jarrera batzuk transmititu,

hasieratik horiek transmititu nahi dituen pertsonak sinetsi eta barneratuta ez baditu; hau da, ezinbestekoa da lehenagotik pertsona horrek bere burua eta ideiak argi eta zehatz izatea, bakoitzak bere balioak finkatuta izan behar ditu besteei irakasten saiatu baino lehen. Aldi berean, aldaketa egin ahal izateko, beharrezkoa da gogoeta, kritika eta adostasunerako guneak sortzea profesionalen artean, eta familien sentzibilitatea eta parte-hartzea sustatzea (Salamanca, 2014).

2.8. Hezkidetzak

Bestalde, **hezkidetzak**, hau da, hezkuntza-ez sexista kontuan hartzea, ezinbestekoa da. Hezkidetzak emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna, aukerak, betebeharrak, lana parekatzea helburu duen hezkuntza-eredua da (Reizabal, 2016, in Eusko Jaurlaritza, 2019). Desberdintasunetatik berdintasunean hezteak da, oso helburu argiarekin, etiketarik gabeko mundu bat eraikitzea, non emakumeak eta gizonak maila berean egongo diren, beren eskubide eta askatasunekin (Barquín, 2016, in Eusko Jaurlaritza, 2019).

Baina, hala ere, ikastetxeetan hezkidetzak lantzeko material eta metodo falta handia dago. Irakasleak ez dira ari hezkidetzak-praktika bati jarraitzen ikasgeletan genero-ikuspegitik, eta familiek, gehienetan, jarrera tradizionalistak dituzte, non amak arduratzen diren seme-alabak zaintzeaz eta etxeko lanak egiteaz (kanpoan ere lan egin ala ez). Hezkidetzaren ikuspegitik, pertsonen ahalmen guztiak garatu behar dira, desberdintasun biologikotik abiatuta, baina desberdintasun hori pertsonak hierarkizatzekeko arrazoi bihur ez dadin. Hezkidetzak-lan horretan, erabiltzen den material didaktikoa tresna baliotsua izan daiteke, bizimodu eta portaera desberdinak transmititzeko, eta ez agertzeko inolako hierarkizazio edo bereizkeriarik (Zaitegi eta Urruzola, 1993).

2.9. Haur Hezkuntza

Azkenik, lan honen xedea kontuan harturik **Haur Hezkuntza** aipatu beharra dago. Ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako planteamendu etiko batetik abiatuta, aukera-berdintasunerako bermea izan behar da Haur Hezkuntza, ezaugarri pertsonalengatik, nortasun kulturalarengatik, genero-nortasunagatik edo sexu-joera eta -nortasunarengatik inolako diskriminaziorik egiten ez duen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua (237/2015 Dekretua, 2. or.). Etapa honetan, haurrak generoari buruzko lehen ideiak eta bere genero identitatea garatzen hasten dira. Beren maistren portaerek, transmititzen zaizkien balioek eta irudi horretan hezteko moduak zehaztuko dute protagonistek haurtzarora eta irakasteko moduak nola ulertzen dituzten, eta hori guztia, nagusiki, **jolasaren** bidez egingo dute. Izan ere, Eriksonen (1974, in Rodríguez, 2020) esan bezala, jolasa munduaren, kulturaren

eta gizartearen isla da, eta horren bidez, balioak eta rolak ere ikasten dira, hau da, ezinbesteko teknika edo bidea da ikaskuntzarako eta sozializatorako.

Bestalde, **emozioak** ere kontuan izan behar den gai bat da, umeek gorputz osoarekin ikasten dutelako eta sentitzen dutena ezagutzen joan behar direlako. Platerok (2014, in Gorrotxategi eta Álvarez-Uria, 2017) dioenez, genero identitate kontuetan, oso garrantzitsua da haurrei hitz egiten uztea eta entzutea eta beraien sentimenduak azaleratzen uztea, izan ere, era horretan bakarrik edukiko da aukera zer sentitzen duten jakiteko, diren bezala onartu eta behar besteko laguntza eskaini ahal izateko.

Haur Hezkuntzako instalazioetan, **material didaktiko** ugari erabiltzen da. Hala ere, literaturarekin kontaktua eskoletan egiteaz gain, familian eta gizartean ere egiten da. Honetan, liburuek parte handia hartzen dute, baina horiek balio eta estereotipo batzuk transmititzen dituzte. Ezinbestekoa da jarrera eta ideia sexisten hausnarketa egitea **ipuin bat** kontatu aurretik (Moya, 2008: 131). Beharra dago ipuin horiek ikasleekin aztertzeke, modu horretan beren kritikotasuna lantzea lortuko delako. Horretarako ere, hezkuntzan sexismoa ezabatzeko material ez sexisten lanketa eta erabilera egitea oso garrantzitsua da, ipuin alternatibo horiek aukera berdintasunaren alde egon daitekeela erakusten dietelako haurrei. Hori egiteko ikasleen sormena eta irudimena alde batetik, eta irakasleek transmititzen dituzten balioak bestetik, ezinbestekoa izango dira. Claveriak (2018) aipatu bezala, ikasgelan jartzen dituzten adibideek, irakurtzen diren ipuinek, ikusten diren filmek edo telebistan irensten diren marrazki-bizidunek berresten eta legitimatzen dituzte gurasoek erabili dituzten genero-estereotipo guztiak. Beraz, garrantzitsua da ikas komunitatean hezi ditzaten umeak berdintasunean jolasaren, literaturaren eta sormenaren bidez (Moya, 2008).

Naturan, edo klasetik kanpo jolasteak zaintza eta errespetua bezalako balioak indartzen ditu eta berdintasunaren alde egiten du jostailuen beharra ekiditen delako. Hortaz, Olanok dionez (2007, in Larramendi, 2016), **jolastokia** leku ezin hobea da jarrera batzuk bermatzeko, norberak bere izatea modu libreagoan adierazten baitu hor, baita gainerakoei eurei buruz adierazi nahi dietena, irakasleen gidaritzapean egon gabe. Espazio hauek ez dira ikasteko gune bezala diseinatzen, aisialdirako espazio modura baizik, ulertu gabe aisialdian ere ikasi egiten dela. Garapen pertsonal eta sozialarekin lotutako abildadeak garatzen dira, ikasleek berdinekiko dituzten erlazioetan eta taldeetan integratzeko gaitasunean eragina dutenak. Jolastokian umeak modu librean ibiltzen dira jolasean, baina haien jokamoldea aztertzen bada, azaleko libertate horren azpian gizartean errotuta ditugun genero-rolak errepikatzen dituela ikusiko da (Olano, 2007, in Larramendi, 2016).

Jolastokiak aztertzen badira, mutilentzat akziora bideratutako ekintzak sustatzen dira batez ere, botereguneetan egoteko behar diren ezaugarriak lantzen dituztenak. Mugitzera eta espazio gehiago okupatzera bultzatuak dira. Neskentzat aldiz, zaintzekin eta edertasunarekin erlazionatutako aktibitateak sustatzen dira, pasibotasuna, lasaitasuna eta aktibitate fisiko gutxiago behar izan ohi dutenak (Larramendi, 2016). Ekintza maskulinoek, beraz, indar sinboliko handiena duten espazioak betetzen dituzte, neskek eremu txikiago eta marjinalagoak erabiltzen dituzten bitartean, identitate argirik ez dutenak (Hernaniko Udala, 2003, in Larramendi, 2016). **Balio** horiek hezkuntzaren bitartez transmititzen dira, baita gizartean eraikitako erreferente eta errepresentazioen bitartez ere. Genero rolen eragina saihesteko, garrantzitsua da sexu bati zein besteari ezarritako jarduerak eta balioak kritikoki aztertzea. Horrela konturatuko direlako ikasitakoak direla eta aldatu daitezkeenak.

3. METODOLOGIA

TESTUINGURUA eta PARTE-HARTZAILEAK

Lan hau Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur Hezkuntzako 4. mailan, *Adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez* minorra ikasten ari den ikasle batek egindakoa da. Lanaren alderdi praktikoa gauzatzeko, Gasteizen dauden eskola desberdinen Haur Hezkuntzako 9 irakasleen esperientziak kontuan hartu dira. Irakasle horiek adin desberdinetako emakumeak izan dira, belaunaldietan zehar genero-rolen pertzepzio eta transmisioan aldaketarik egon den ala ez ikusteko. Zehazki, horietako hiruk Barrutian lan egiten dute, beste hiruk Odon de Apraiz ikastolan eta beste hiruk, Arantzabelan. Nahiz eta ikastetxe horiek Gasteizkoak izan, irakasleak beste herri batzuetakoak dira: Dima, Algorta, Hernani, Ataun, Bakio, eta Ormaiztegi. Gasteizkoak hiru dira. Ia gehienak HHko bigarren zikloan aritzen dira, baina oro har, adin desberdinetako haurrak izan dituzte ikasle ikasturte desberdinetan.

Aurrerago emaitzetan elkarrizketa guztietako esaldi esanguratsuenak agertuko dira, hau da, elkarrizketatutakoek irakasle bezala orain arte izan dituzten bizitza-historiak jaso dira eta bertatik aukeratu izan dira pasarte adierazgarrienak. Baina irakasle horien anonimotasuna zainduko da haien izenak esan beharrean bakoitzari esleitu zaion kodea erabiliz (E1, E2, E3, E4, E5, E6, E7, E8 eta E9). Hala ere, haien adina, jaioterria eta zein eskolatan dauden agertuko da, horiek garrantzitsuak direlako aztertu den gaiaren pertzepzio aldaketa honetan.

TRESNAK

Lan hau egiteko erabilitako tresnak hauek izan dira: ikerketa narratiboa, ahozko historia, elkarrizketa sakona eta galdetegia, eta hori aztertzeko, grabazioaren transkripzioetan eta jaso ditudan landa-oharretan oinarritu naiz.

Ikerketa narratiboak esperientziak ditu ardatz bezala; hau da, horren ulermenari eta zentzua emateari zuzenduta dago (Connelly eta Clandinin, 1995, in Arias eta Alvarado, 2015). Esperientzia eta bizipen horiek prozesuaren abiapuntuak dira (Phillion eta He, 2008, in Trahar, 2010). Beraz, Josselsonen (2006, in Trahar, 2010) ustez, ikerketa narratiboa jendeak bere bizipenei ematen dizkion esanahietan oinarritzen da. Aipatu bezala, ikerketa narratiboaren metodologia dialogo bat balitz bezala erregistratzen da (Atkinson eta Coffey, 2003, in Arias eta Alvarado, 2015), non narratiba horien bidez bizipenak adierazten diren.

Ahozko historiak ere indar eta garrantzi handia izan du lan honetan. Miren Edurne Ariñok (2009) dioen moduan, praktika zehatzei edo denbora tarte jakinei buruzko kontakizunak dira; kasu honetan, irakasleen bizipenak eta esperientziak kontatu izan dira. Honetan, oso funtsezkoa da balio subjektikoa egotea. Halaber, ez da soilik transmititzea, baizik eta eraikitzea ere bai, eta oso garrantzitsua da entzutea, kontatutakoa berriz eraikitzeko aukera ematen baitu.

Elkarrizketaren bidez, errealitatearen deskribapena testu bihurtzen da, parte hartzaile eta ikertzaileen artean prozesuan aztertuko diren datuak eraikiz. Irakasleak gaiarekiko zuen formakuntza, ibilbidea eta interes maila ezagutzeko, elkarrizketa sakona egin zitzaien. Elkarrizketa, beraz, helburu eta egitura zehatz bati erantzuten dion solasaldi bat da, itaunketen bidez hurbilpen bat lortu eta kalitatezko ezagutza bereganatzeko xedea duena (Kvale, 2012 eta Tójar, 2006 in León, Tsvintarnaia, Martínez eta Gamito, 2020). Halaber, ikergaiarekiko ikuspuntu anitzak biltzen laguntzen du, esan bezala, elkarrizketen bidez pertsonen jarduera, esperientzia eta iritziak jasotzen baitira.

Aurreko horren barnean, ***galdetegiak*** prestatuak egon dira, gaiaren inguruan dituzten ezagutza, bizipen eta espektatibak aztertu nahi izan dira egoeraren ikuspegi orokor eta osatu bat izateko. Horretarako galdetegia diseinatu da eta tutorearekin kontrastatu da, helburua lortzeko ahalik eta egokiena izan zedin.

Esan bezala, ***grabazioaren transkribapenetan*** oinarritu naiz ahotsak aukeratzeko. Mugikorrarekin grabatu ditut elkarrizketak gero horiek transkribatzeko erraztasuna izateko. Grabazioak balio izan du detaileak harrapatu ahal izateko eta hasieran garrantzi handikoak ez ziren

esaldiak kontuan hartzeko, eta ez ahazteko. Halaber, **landa-oharrak** ere hartu izan dira elkarrizketan zehar, batez ere, adierazpen esanguratsuenak apuntatzeko eta prozesuaren narrazioa ñabarduraz egin ahal izateko.

PROZESUA

Hasteko, lan honi hasiera emateko, ezinbestekoa izan da nire zuzendariarekin lehenengo kontaktua egitea. Horregatik, gure lehen bilera 2020ko irailaren 22an izan zen. Bizi dugun egoera dela eta, online egitea erabaki genuen. Horrela, lan honen nondik-norakoak zehaztu genituen, baita nondik abiatuko zen ere. Hori eginda, galdetegia prestatzen hasi nintzen, 8 galderez osatua, gero horiek elkarrizketa egiterako orduan erabiltzeko:

1. Zer dira genero rola zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?
2. Zein iritzi duzu genero rola buruz? Zure bizitzan zehar genero rola inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?
3. Nola landu izan dituzu/lantzen dituzu genero rola klasean hurrekin? (erabiltzen den hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketa...)
4. Zer egin daiteke genero rola neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?
5. Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero rola dagokienez?
6. Adin desberdinetako lankideekin genero rola nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eta eskolak (bada hezkidetzaren planik edo protokolorik hori lantzeko)?
7. Zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?
8. Zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero rola gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

Bestalde, praktikara eraman aurretik, teoriarik oinarritu nintzen, eta adituek esandako eta idatzitako dokumentu, artikulak, eta tesiak irakurri eta aztertu nituen, batez ere, marko teorikoa eta nik erabilgaitako tresnen informazioa elikatze eta aberasteko. Hori egiten ari nintzen heinean, elkarrizketatzeko irakasleen bilaketari ekin nion. Hasieran, nire lagunei nire proposamena zabaldu nien, eta ea norbait ezagutzen zuten galdetu nien. Ia ez nuen erantzunik lortu, beraz, eskolekin kontaktatzen hasi nintzen. Hasieran, mezuak bidali nituen, erantzunik ez nuela jasotzen ikusita, deika

hasi nintzen. Momentu zaila izan zen, 20 eskolekin kontaktatu nuelako eta ez nuelako inor aurkitzen... Baina, azkenean, hiru eskolen artean, 9 irakasle lortu nituen elkarrizketa horiek gauzatzeko.

Covid-19 egoera dela eta, erabaki genuen hobe zela online egitea elkarrizketa, eta horrela ekin nion lan honen alderdi praktikoari. Hala ere, elkarrizketa horiek hasi aurretik, bakoitzari elkarrizketa hori grabatzeko baimena eskatu nion. Elkarrizketak azaroan zehar gauzatu ziren; hau da, azaroaren 2tik abenduaren 1erako tartean. Behin elkarrizketa guztiak burututa, transkribatzeko ordua heldu zen eta transkribatutako testutik informazio garrantzitsuen hartu nuen (ikus eranskinak). Jarraian, esandako horien artean, galdera bakoitzeko esaldi esanguratsuenak jaso nituen emaitzetan txertatzeko. Azkenik, datuen analisia eta interpretazioa egin nuen eta ondorioak atera nituen.

HELBURUAK

Lan honen xedea, arestian aipatu bezala, Haur Hezkuntzako maistren artean belaunaldiz belaunaldi genero-rolen ikuspuntuaren aldaketa egon den ala ez ezagutzea izan da. Hortaz, lan honek hiru fase izan ditu bere prozesuan; marko teorikoa, elkarrizketa eta lana idaztea.

1. Marko teorikoa

Beraz, lehenengo fase honetan, marko teorikoan, genero-rolen historian zehar izan duten bilakaera ezagutu nahi izan da. Horregatik, informazio eta iturri desberdinetan oinarritu da.

2. Elkarrizketa

Fase honetan, lortu nahi izan da belaunaldi desberdinetako irakasle batzuen ezagutzak eta esperientziak biltzea eta marko teorikoarekin kontrastatzea. Haien bizipenak eta esperientziak balioetsi nahi izan dira, orain arte isilik egon diren ahotsei lekua egiten.

3. Lana idaztea

Azken fasearen helburua izan da jasotako informazio guztia modu argi eta garbi batean islatzea dokumentu honetan.

Hasierako hipotesia belaunaldi berriek kontzientzia feminista handiagoa izango zutela eta ikasgelan genero rola auzitan jarriko zituztela izan zen. Baina lan honi esker, ikusi daiteke aldaketak egon arren, oraindik badagoela bide luze bat eraikitzeaz.

4. EMAITZAK

Emaitei dagokienez, oro har elkarrizketa oso interesgarriak, baliagarriak eta aberasgarriak izan ziren. Izugarritzko aldaketa izan nuen nire jarreraren lehenengo elkarrizketa egin nuenetik azkenengoak egin nituenerako. Izan ere, nire lehenengo aldia zen pertsona ezezagunak gai honetaz elkarrizketatzen nituena eta nabaritu izan da. Hala ere, elkarrizketa sakon horiek aurrera eramanez ahal izan nituen eta irakasleen laguntzaz ere pixkanaka-pixkanaka beldur eta urduritasun hori desagertuz joan zen. Oro har nahiko ideia berdintsuak ateratu dira bederatzi elkarrizketa horietan, genero-rolakiko pertzepzioa ez da pentsatu genuen beste aldatu azken urte hauetan zehar, baina hala ere, jarraian ikusiko dira bakoitzak esandako esaldi esanguratsuenak galdera desberdinetan. Hala ere, puntu bakoitzean ez dira pertsona guztien hitzak aterako; esan bezala, oso antzekoak izan baitira.

Genero-rolen definizioak

Orokorrean, jarraian aurkituko diren definizioak oso antzekoak izan dira, denek izan dutelako antzeko pentsaera, bakoitzak bere bizipenetan oinarrituta. Genero-rolak dira gizarteak pertsona bakoitzari ezartzen dizkion rolak; jarrerak, ekintzak, sentimenduak... Denek pentsatzen dute gizarteak duela eta izan duela eragina horiengan. Genero-rolak betidanik oso barneratuta izan ditugu, eta guk inkontzienteki eginda ere, gizarteak beti irakatsi dizkigun komentarioak esaten jarraitzen dugu gure egunerokotasunean. Genero-rolak antzinatek datozen ezarritako ekintza eta arauak dira, eta nahiz eta gaur egun horiek gutxiago ikusi, oraindik badaude.

Ba, gehienbat lotzen dut egunerokotasunean sortzen diren umeen komentarioekin. (E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Genero-rolak dira norbanakoari ezartzen zaizkion rolak. Baina sistema, egun, tamalez, bi generotan banatzen da eta pertsonen segun eta emakumezko edo gizonezko kasu honetan, zer rol ezartzen zaizkion. (E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Ba niretzat genero-rolak dira sexuaren arabera bakoitzari ematea rol bat. (E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

Ba nik ulertzen dut genero-rol bezala igual sexuari atxikitzen dizkiogun portaerak, baina sozialak, sozialki ulertzen dena, bakoitzari zer suposatzen den dagokiola. (E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

Genero-rolak dira gizarteak urteetan zehar ezarri dituen estereotipo batzuk pertsonengan, eta horiek urteetan ikusi izan ditugunak; hau da, zu emakume edo gizona izateagatik bete behar zenituen ekintzak. (E4, 55 urte, Ormaiztegi, Odon de Apraiz)

Genero-rolen adibide batzuk

Adibideetan, nabaritu izan da koloreen presentzia. Askotan lotzen da arrosa nesken kolorearekin eta urdina, aldiz, mutileena, eta azkenean hori barneratuz joan denez, haurrek eskoletan izaten dituzten komentarioak bihurtzen dira. Eta ez bakarrik koloreekin, ekintza desberdinekin, kirolarekin ere gertatzen da.

Bost urtekoekin nengoenan, ba batzuetan jolasei buruz entzutea <<hori neskena da>> edo <<mutilena da eta ezin duzu jolastu>>. (E9, 39 urte, Gasteiz, Arantzabela)

Eta haurrekin, ba tipikoa, beti gertatzen da jolasekin, ba <<hau da nesken jolasa>> edo koloreekin, hau da <<arrosa da nesken kolorea>>. Horrelako adibideak jarraitzen dute agertzen gaur egun ere. (E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

Nire esperientzian ba adibidez arrosa kolorearena askotan gertatu zait, esatea <<nesken kontua da eta ez mutilena>>. (E5, 57 urte, Gasteiz, Barrutia)

<<Nork fregatzen du etxean?... No no, mi papá no friega>>. (E3, 44 urte, Hernani, Barrutia)

Esaten dute <<mi mamá suele fregar los platos y mi padre está con el móvil en el sofá>>. (E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Genero rolekiko ikuspuntu pertsonalaren bilakaera

Denbora pasa ahala, gizartean, gure bizitzan eta errealtatean gertatzen denaz ohartzen joaten gara, eta hori dela eta, uste dut nahiko kontziente garela, oraindik falta zaigun arren, genero-rolak existitzen direla oraindik, baina hortaz, kontu handiagoarekin ibiltzen gara batez ere komentarioak esaterako orduan, jarreretan... Beraz, orokorrean denek ez dute aldaketa handirik izan genero rolekiko ikuspuntuan.

Txikitatik jaso dudana heziketa da nik bakarrik aurre egitea bizitzari, bai ekonomikoki, edo edozein arazoren aurrean nik bilatzea konponbidea. Eta orduan, ez dakit, aldaketa handirik ez, ba nik horrekin jarraitzen dut. (E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Egin dudana da borrokatu, nire burua formatu urteetan eta urteetan. Baina hori, ez dut aldatu askorik, igual zerbait bai eh, rolak azkenean nahigabe barneratuta ditugu gauza batzuk, baina bueno, oso kontzientea izan dut betidanik. (E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

“El complejo de Cenicienta” liburuak ireki zizkidan begiak, eta hor hartu nuen kontzientzia... Nik ez dut pentsatzen etxeko gauza guztien ardura nirea dela, baizik eta partekatu behar dugula eta horretan gabiltza. (E5, 57 urte, Gasteiz, Barrutia)

Nik uste dut urteak aurrera joan diren heinean, gure gizartean ere aldaketa bat ematen doala. Orduan uste dut, gero eta kontzienteagoak garela, nahiz eta betidanik izan dugun hori, orduan gehiago zaintzen dugu gure hitz egiteko era eta jarrera. (E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

Niri txikitan ikastolan ez zidaten uzten futboleko jolasten, mutilena zela esaten zutelako. Aldaketa kostata baina bai, lortu nuen, ez zegoelako ondo ikusita. (E8, 40 urte, Bakio, Arantzabela)

Klasean haurrekin egindako genero-rolen lanketa

Generoaren gaia uste dut naturaltasunez egin beharreko gauza bat izan beharko litzatekeela. Ikasturte guztietan zehar landu beharreko gaia, ez bakarrik egun berezi batzuetan. Eta jarraian ikusten denez, lanketa desberdinak egon dira; batzuek naturaltasunez egiten dute eta beste batzuek planifikatzen dituzte. Nik ez dut esaten planifikaziorik ez duela behar, baina azkenean gure egunerokotasunean pil-pilean dagoen gaia da, eta ez genuke hain beharturik egin behar. Hala ere, askoren kasuan, ipuinak izan dira haien tresna garrantzitsuena.

Ez naiz zuzenean zuzentzen horretan, saiatzen naiz ipuinak kontatzen ditudanean ba berdintasunari buruz edo emakume edo gizonen arteko desberdintasun handiak agertzen ez direnak... hau da, saiatzen naiz normaltasunean jartzen. Egunerokotasunean eta gela barruan normaltasunean, azaldu pertsonak garela eta hor desberdintasunak sortu gabe, eta sortzen badira, baretuz. (E4, 55 urte, Ormaiztegi, Odon de Apraiz)

Egunerokotasunean eta era natural batean, eta sortzen denean komentario bat sexista dena edo genero roletan oso markatuta dagoena ba saiatzen naiz apurtxo bat bideratzen, umeak ikusteko zer den atera dena. Ezkutatu beharrean, saiatzen naiz klasera plazaratzen eta horretaz debatitzen. (E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

Asko erabiltzen dudana da, Haur Hezkuntzako umeek identifikatzeko pixka bat eta ikustarazteko zertaz ari garen, ba ipuinez baliatzen naiz... (E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Igual saiatzen naiz lantzen ditugunean gauzak, ba adibidez, lanbideak, ba jarri beharrean lanbide bakoitzeko ba <<medikua gizona eta emakumea irakaslea>>, ba bi sexuak jartzen ditut, ez bakarria. (E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

Ipuinak, abestiak... lantzen ditugu. Eredu zabalagoak erakustea izaten da nire esku-hartze zuzena geletan. (E8, 40 urte, Bakio, Arantzabela)

Desoreka eta biolentzia ez eragiteko moduak

Honetan, egia esan, nire ustez, generoak ez du eraginik biolentzia kasuan, behintzat Haur Hezkuntzan. Talka egoten da nesken artean, mutilen artean eta neska-mutilen artean. Gatazkak egoten direnean ez dira izaten generoaren aldetik, baizik eta pertsona bakoitzaren kontua. Elkarrekin egoten ikasten hasten dira adin horietan. Hori dela eta, Haur Hezkuntzan, oso azkar sortzen dira liskarrak, eta horietan, generoaz aparte, izaerak, jarrerak, faktore askok dute eragina. Hortaz, pertsonen arteko harremanak sendotu behar direla aipatu izan da. Hala ere, irakasle batzuek bizi izandako esperientziak kontuan hartuta, badaude kasuak non generoak izan duen eragina eta harremanetan boterea genero maskulinoa dutenek izan duten.

Ba nik uste dut funtzionatuko lukeela jolas kooperatibok asko eta ikustea neska edo mutila izanda ere, elkarren beharra dutela. Talde lan hori bultzatzea, berdin izanda neska edo mutila dagoen taldean ala ez. (E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Nik uste dut eskolan lehenengo egin behar duguna da guk geuk mentalizatu, zertan egiten dugun gaizki eta zertan ez, eta gero umeei berdintasun mezu bat edo zabaldu bai jolasetan, bai koloreetan, bai materialetan, bai denboretan eta bai kulturatan. (E3, 44 urte, Hernani, Barrutia)

Hasiera hasieratik erakutsi behar diegu beraien arteko harremanak sendotu behar direla eta lasai ibili behar direla modu egokian. (E4, 55 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Ba niretzat klabea da txikitatik hezkidetzan heztea eta txikitatik erakustea gure ezberdintasunean denok dauzkagula eskubide berdinak eta jokatzeko aukera berdinak gauza ezberdinen aurrean, niretzat klabea da txikitatik heztea. (E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

HHko irakaslearen genero rolei buruzko prestakuntza

Prestakuntza guztiekin gertatzen den bezala, funtsezkoa da gogoia, inplikazioa eta motibazioa izatea, bestela ez du zentzurik formakuntza batean murgiltzeak. Halaber, balio batzuetan oinarritzea ere garrantzitsua da jakiteko zein bide hartu nahi den, azkenean bakoitzak bere burua aztertu behar du zerbait landu eta irakatsi baino lehen, ezin da zerbait transmititu bakoitzak barneratuta ez badu. Hala ere, uste dut gai honi buruzko formakuntzarik eza dagoela eta gainera, beharrezkoa dela.

Gogoia eta motibazioa izatea gauzei buelta emateko, hori izan behar du irakasle batek nire ustez. (E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Niretzako hori, formatu, elkarlanean lan egin eta gero ba materialak aztertu, umeezko begirada estereotipatu gabea, aukerak eskaini, baina horretarako formatu egin behar zara lehenago eta ikusi zer egiten duzu eta nondik hobetu dezakezun. (E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Igual gaiaren inguruan prestakuntza edukitzea ere iruditzen zait garrantzitsua ze betikoa, uste duzu badakizula dena baina prestakuntza falta zaigu zentzu horretan. (E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

Haur Hezkuntzako irakasle batek genero-roi buruz jakin beharko luke lehenengo hori, berak zer eskaini nahi duen, zer esan eta azaldu nahi duen eta nola, eta hori argi daukanean, ba zabaldu gelan. (E4, 55 urte, Ormaiztegi, Odon de Apraiz)

Nik beti esaten dut niretzat garrantzitsuagoa dela ereduia izatea hitzak baino. Umeekiko berdintasun osoa landu, esandako eredu eta rol desberdinak erakutsi... Batzuetan agian hobe da ekintzetan animalia bat jartzea, neutroagoa delako. (E8, 40 urte, Bakio, Arantzabela)

Adin desberdinetako lankideen pertzepzioak

Inork ez du jaso inoiz lankide baten jarrera txarra adin desberdintasuna dela eta. Hala ere, nahiz eta irakasle horiek ez jaso, ez du esan nahi gertatzen ez denik. Batzuek aipatu bezala, maila altuagoko lanetan, mutilek dute indar handiena eta hori bai nabaritzen da harremanak sortzerako orduan. Egonez gero, inkontzienteki egindakoak izan direla uste dutela aipatu dute.

Guk horrela egiten dugu, beti saiatu bestearena errespetatzen, baina zure eraikuntza nondik datorren azaldu eta horretarako aukera dago. Elkarlana hezkuntzan derrigorrezkoa da, bai arlo honetan bai beste edozeinetan ere. (E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Baina ildo beretik joan gara denok eta elkarrekin ikas dezakegu denok. (E4, 55 urte, Ormaiztegi, Odon de Apraiz)

Orduan adinean ez nuen zehaztuko, uste dut pertsonena dela eta zuk ea nola bizi izan duzun hori, bizipenak, edo bizitza filosofia ere... (E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

Batzuetan bai, detaileak ikusten ditut, ze hain barneratuta daukaten, nahiz eta hezkidetzat landu nahi... Baina hori, detailetxoak. (E8, 40 urte, Bakio, Arantzabela)

Egoten bada, batez ere nahigabe egiten ditugun komentarioak izaten dira. (E9, 39 urte, Gasteiz, Arantzabela)

Eskolaren inplikazioa

Orokorrean, ez dago ondo zehaztuta hezkidetza planik edo protokolorik dagoenik genero-rolari begira, baina hala ere, eskola bakoitzaren hitzak hauek izan dira; alde batetik, Barrutiakoek esaten dute hezkidetza plana dagoela baina ez dutela ezagutzen:

Orain arte, Nafarroan ibili naiz, hor bizi naizelako eta Nafarroako gobernuak izan duen SKOLAE programa eta hezkidetzarako material ugari banatu zen, irakasle guztiak formatu ginen eta bai dagoela hezkidetza edo genero-rolak eta oso antolatuta eta material pila bat adinka ordenatuta. (E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Baina leku askotan egoten dira hezkidetza arduradunak, hemen ere egongo da, plana badagoen ba ez dakit, ez dit denbora eman begiratzeko. (E3, 44 urte, Hernani, Barrutia)

Uste dut hezkidetza plana badagoela, baina momentu honetan ezin dizut ziurtatu, eta nik ez dut ezagutzen. (E5, 57 urte, Gasteiz, Barrutia)

Odon de Apraizekoek, aldiz, diote hezkidetza planik ez dagoela:

Hezkidetza planik ez dago eskola honetan, dago elkarbitza plana, eta horretan badago generoa edo hezkidetza integratua. (E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Azkenik, Arantzabelakoek, hezkidetza plana badaukatela esaten dute, baita horretan lan egiteko taldeak ere.

Hezkidetza plana ere badute eta orain hasi gara batzordeak eratzen, badago hezkidetzaren batzordea. (E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

Hezkidetza plana badago, eta hezkidetza taldea ere bai. Baina bai egiten dituztela horrelako ekimenak eta adibidez orain azaroak 25ean egin zuten kartela zen <<Minik ez>>. (E8, 40 urte, Bakio, Arantzabela)

Nahikoa da? Aldaketak egin behar dira?

Galderari dagokionez, inoiz ez da nahikoa, beti gauza eta gai guztien probetxua atera dezakegu, eta indar eta garrantzi handiagoa eman horiei. Prozesu luze batean murgilduta gaude, eta pausoka-pausoka aldaketak egiten joan behar gara, pixkanaka-pixkanaka baina gelditu gabe. Gainera, aipatzen da formakuntzak egotea aberasgarria izango litzatekeela.

Inoiz ez da nahikoa. Ez dago denborarik, baina egotekotan, gure ordu lektiboetako batzuk talde hausnarketarako jarriko nituzke eta hori mahai gainean jarri eta beste maila bateko aditu batekin bide

hori egiteko aukera balego, ba horrela, gure burua zalantzan jarri, behatzen... (E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Agian formakuntza gehiago eman irakaslegoari, ba igual bai, estrategiak emateko ba igual umeen arteko gatazkaren bat edo sortzen denean, nola jokatzeko... hori igual ez litzateke gaizki egongo. (E3, 44 urte, Hernani, Barrutia)

Ba nik uste dut denok ematea igual garrantzia honeri. Nik egingo nuena da duen garrantzia ematea, baina ematea umea eskolara sartzan den momentutik eta gure egitekoetan ba ardatz bat izatea eta horri eustea, umeak horrela hezteko. (E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

Inoiz ez da nahikoa, eta gainera ikusita ume askok familietan dituzten ereduak eta ba beti landu daiteke gehiago. Aldatzeko... ba honetan ere igual familien parte-hartzea eta kontzientziaren pizte horretan indar handiagoa egingo nuke. (E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

Belaunaldien azterketa eta konparaketa

Lan honetan agertu den bezala, historian zehar genero-rolari buruzko ikuspuntua aldatuz joan da. Adibidez, nire pentsaerak nire inguruko pertsona batekin konparatuz ez du zerikusirik. Urteak pasa ahala, kontzienteagoak bihurtzen joaten gara.

Bai. Alde handia dago nire amaren belaunalditik nireira, nire amak eta nire aitak pauso batzuk eman zituzten. Orduan aldaketa egon da, nire inguru handi bat izan da genero-rolari inguruko borroka pisutsua, eta horretan zerbait gertatu da. Eta hurrengo belaunaldia zaretela zuek, kriston aldaketa ikusten dut nik. Hausnarketa haratago eraman da. Nik somatzen dut jendea formatuagoa. (E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Bai, gehiago dakartza zuena. Baina guk gure aurreko belaunaldiarekiko nik uste dut egin direla gauza asko. Egia da gure aurreko belaunaldian hezi zirela emakumeak lanean, hasi zela feminismoa eratzen eta asko ikasi dugula eta eredu asko izan ditugula gure belaunaldi aurreko emakumeengatik. (E3, 44 urte, Hernani, Barrutia)

Aldaketa itzelak egon dira, ni, nigan. Nire familian, nire ama izan zen nire erreferente itzela, berak jarri zuen indarra gu ikasketa prozesuan sartzeko, izateko pertsonak, pertsona langileak, hau da, gure independentzia izateko. Hau da, guk jaso duguna edo zuek jasotzen duzuen transmisio hori ez da gelditu behar. (E4, 55 urte, Ormaiztegi, Odon de Apraiz)

Uste dut baietz, esperantza eduki behar dugu gainera. Uste dut bai dela gai bat arduratzen duena, eta telebista piztean eta teleberria ikusita eta entzutea, nahiko penagarria dela... orduan uste dut datozen belaunaldi berriak horretan kontzienteagoak izan behar direla eta ekin lan horri, ez bakarrik entzun

eta sinistu horretan, gero praktikan jarri egunerokotasunean gelan eta umeei bide horretan hezte. (E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

Nik uste dut aurrerapausoa egon dela, baina oraindik falta zaigula, ze azkenean aurreiritzi nahikotxo izaten jarraitzen dugu, telebistaren errua, inguruaren errua... dena delakoa. Iguar kontzienteak gara, baina azkenean nahi gabe kontsumitzen dugun hori barneratzen dugu ere bai. Oraindik dauzkagu oso markatuta gauza batzuk. (E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

5. ONDORIOAK

Gradu amaierako lan honetan hasieran aipatzen den bezala, ezagutu nahi izan da belaunaldien arteko desberdintasunak genero-roleri dagokienez. Beraz, ondoriotzat har dezakegu lan honek hasiera batean proposatutakoa lortu duela; aldaketa horiek dauden edo ez jakitea, teoriar oinarrituta eta irakasleen esperientziez eta bizipenez baliatuz.

Garaiei begira, aldaketa itzela egon da belaunaldietan zehar. Lehen, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak asko antzematen ziren; trataera, hezkuntza, lanbideak... Adibidez, emakumearen gizarte-eginkizuna etxeko eremuaren esplotazioa izan behar zuen eta nola jokatu behar zuen irudikapen ideologiko eta artistikoek eta instrukzio publikorik ezak (emakume gehienak analfabetoak ziren) markatutako unibertso erredukzionista batera mugatzen zen (Perrot eta Fraise, 1994, in Bernad, Mut eta Fernández, 2013). Baina gaur egun, nahiz eta oraindik rol horiek iraun eta gure bizitzan egon, pixkanaka-pixkanaka apaltzen eta moldatzen joan dira.

Nire ustetan, belaunaldi berriekin, aldaketa eta hobekuntza etorri da genero-roletara. Hori izan da nire hasierako pentsamendua, baita hipotesia ere. Beraz, behin lan honen prozesu guztia bukatu eta gero, batez ere elkarrizketek izan duten garrantzia kontuan hartuta, esan dezaket hasierako ideia hori konfirmatu egin dela. Konparaketa itzela egon da orain dela 100 urteko pentsamenduarekin, jendea orokorrean formatuagoa dago, kontzienteagoa da, lanketak eta prestakuntzak garatzen joan dira... eta guzti horri esker, genero-rolek eraldaketa bat izan dute historian zehar. Uste dut, errealitatea ikusi eta gero, zerbait aldatzearen beharra sentitzen dela, eta nahiz eta pauso txikiak eman, lorpenak badaude. Garrantzitsuena da ez dela etsi behar prozesu horrekin, ezinbestekoa da gure egunerokotasunean jarraitzea guzti hori lantzen, gure burua formatzen, eta informazioaz baliatzen.

Gaur egun, generoak hainbat azterketa-mota biltzen ditu: emakumeenak; sexuen arteko gizarte- eta kultura-harremanenak; maskulinitasunenak eta sexu-aniztasunenak; gizonen eta

emakumeen arteko harremanen gizarte-antolaketa buruzko ikerketak; gorputzaren semiotikaren, sexuaren eta sexualitatearen kontzeptualizazioak; botere-mikroteknika; eta identitate-helburuak (Lamas, 2006, in García-Peña, 2016). Lan honekin, genero-rol negatibo horiek ekiditearen beharraz ohartarazi nahi izan da. Aldaketak egon dira urteetan zehar, bai, baina oraindik badira gure artean behartuta eta esleituta dauzkagun rol eta estereotipo horiek, gizarteak txertatzen dizkigunak. Horregatik, horien eragina kontuan hartu behar dugu eta egoera hori gaingitu.

Beraz, esan bezala, nire hasierako hipotesia konfirmatu egin da. Marko teorikoa ikusita, aurreko belaunaldietan emakumeek ez zuten botererik, ezta eskubiderik ere. Orain, horrek aldaketa handia izan du, eta emakumeok boterea eta eskubideak baditugu, ez dugu gizonen menpe egon behar, beste belaunaldi batzuekin begirada atzeraka bota eta gero; hala ere, oraindik prozesu luzea da. Elkarrizketetan, aldiz, ikusi egin da gaur egungo egoera hobea dela aurrekoetan baino. Gainera, informazio gehiago lor daiteke gai honen inguruan, eta horrek formakuntzak ere errazten ditu. Bakoitzak bere bizitza bere kabuz nola eraman nahi duen erabakitze aukera dago.

Gainera, elkarrizketatuen artean, helduak zein gazteak egon dira. Hasieran, pentsatzen nuen horien arteko desberdintasuna egongo zela, baina behin elkarrizketa guztiak izanda, ohartu naiz okertu nintzela, nahiko ideia parekoak izan dituzte denek, hasieratik argi izan dutelako zer ikasi nahi zuten gai honen inguruan, zertan lagundu ahal zuten, bere burua formatu nahi zuten... beraz, denak egon dira momentu oro beren buruak formatzen edota prestakuntzak sortzen genero-rolen lanketa sakon bat egin ahal izateko.

Hala ere, desberdintasunak agertu egin dira, batez ere haiek etxetik izan duten formakuntzari dagokionez. Batzuek txikitatik jaso dutena izan da adibidez bakoitzak bere kabuz lan egitea, ekonomikoki inoren menpe ez egotea. Beste aldetik, beste batzuek, adin desberdina izan dela eta, beren guraso edota aiton-amonek ez zuten formakuntzarik gai honekiko, eta gizarteak markatzen zuenaren alde jotzen zuten. Beste desberdintasun batzuk izan dira irakasleek genero-rolak nola lantzen dituzten haurrekin. Batzuek naturaltasunez egiten dituzte ekintzak, egunerokotasunean sortzen diren komentarioak, jarrerak edota portaerak aztertzen dituzte, horiek aldatzeko nahian. Baina egon dira beste irakasle batzuk non naturaltasunez ez duten jokatu; ekintzak prestatu egin dituzte gauzak zehatz batzuetarako, gai honekiko ariketak lantzeko... Honekin, ikus daiteke edozer gauza eginez gero ondo egongo dela, bakoitzak bere estrategia du eta garrantzitsuena da genero-rol negatibo horiek saihestea eta gaiaz ikastea.

Behin lan honen ikerketa bukatuta, esan dezaket oso lagungarria izan zaidala formakuntzarako gai honekin hasi dudan bidea. Elkarrizketetan esan bezala, gai hau hartu nuen honetaz gehiago ikasteko eta aztertzeko aukera izateko. Ez da prozesu erraza izan, oso motibatuta egon naiz une oro, baina oztopo batzuk ere aurkitu ditut bidean. Baina esan beharra dago elkarrizketatu ditudan irakasleen laguntza izan dudala, eta horrek ere prozesu honetan ekarpen-handia egin du eta aberastasuna ekarri du.

Nire ikuspuntua aldatu egin da gai honetan. Betidanik, edo hobeto esanda, urteak pasa ahala, pentsatu izan dut feminista nintzela, ondo kontrolatzen nituela nire komentarioak, jarrerak... inkontzienteki ere astakeriarik ez ateratzeko. Baina orain hori ikusita, ez nuen ideiarik benetan zertan datzan gai hau. Ez da bakarrik kontrolatzea komentarioak, baizik eta gure egunerokotasunean egiten ditugun ekintzak ere funtsezkoak dira. Inoiz ez da izango nahikoa formatuak gaudela esateko. Marko teorikoa sortzeak eragin handia izan du nire formazio berri honetan, aditu desberdinen informazioa kontrastatzeko aukera izan dudalako eta bakoitzatik zerbait berria ikasteko ere bai. Halaber, elkarrizketak oso aberasgarriak izan dira, azkenean bizipen eta esperientziatik ateratzen den informazio guztia oso pertsonala denez, horiek irakasten dute errealitatea zertan datzan. Azkenik, lan hau garatzen joan naizen heinean, hilabeteko ikastaro batean murgildu naiz, *“Emakumeen eta gizonen berdintasuna”* izendatutakoa. Honetan, aukera izan dut generoari buruzko gai batzuetan gehiago sakontzeko, eta bestalde, foroan parte hartzeko, beste jende askorekin eztabaidatzeko, ideiak partekatuz... eta guzti horretaz ikasteko. Hortaz, espero dut pixkanaka-pixkanaka eta urtez urte nire burua formatzea, zalantzan jartzea, hausnartzea, inoiz ikaskuntza hori amaitu ez dadin.

6. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Hasteko, zailtasun handiena izan da gaur egun bizitzen ari garen egoera; hau da, Covid-19. Horrek gauza batzuk zaildu egin ditu, batez ere elkarrizketak gauzatzerako orduan. Online egin behar izan ditugunez, modu hotzean egin behar izan ditugula uste dut. Nik beti nahiago dut horrelako gauzak; bilerak, elkarrizketak, tutoretzak... aurrez aurre egitea, ze aukera gehiago dago beste pertsona horrekin konektatzeko, harremantzeko eta erosoago hitz egiteko. Beraz, batzuetan, elkarrizketetan arreta galtzeko arriskua zegoen, konexio falta zela eta, soinuarengatik, arazo teknikoengatik... eta ni, behintzat, oso urduri edota tentsio handiarekin jartzen nintzen. Hala ere, espero nuena baino hobeto atera izan dira elkarrizketak, eta behintzat zerbait (des)jikasi izan dut.

Hobekuntza moduan hartuko nuke nik ere lehenagotik formakuntza bat izatea. Hau da, ez itxarotea azken momentura arte honetaz informatzeko. Batez ere elkarrizketetan, nabaritu egin zelako nire formakuntza eza, eta horrek zaildu zuen eztabaida egotea. Ezezagunekin elkarrizketatzeko esperientzia falta somatu nuen nire aldetik, ez nagoelako ohituta ezezagunekin horrelako elkarrizketak edota eztabaidak izatera eta hortaz, trebezia hori oraindik ez dut hain landuta. Halaber, hasiera batean, gai honekiko nuen formakuntza oso eskasa zen, inoiz ez dudalako jaso prestakuntzarik. Baina hala ere, pixkanaka-pixkanaka elkarrizketak egiten nituen heinean, bakoitzatik zerbait ikasten ari nintzen eta azkenean horietatik formakuntza polita jaso izan dut.

Nire ustez, nire burua gehiago formatuz gero, elkarrizketa horiek aberasgarriagoak izango lirateke. Esan bezala, lan honekin eskuratutako gaiak bai hezkuntzan bai bizitzan duen garrantziaren kontzientzia hartu dut. Genero-rolak, gizartean oraindik dagoen gai potentea da, eta honek duen garrantziaz ohartzeak piztu zidan interesa lan hau aurrera eramateko.

Bestalde, denbora handia pasatu nuen elkarriketatzeko jendea aurkitzen; eskola desberdinetara deika ibili nintzen, mezuak bidaltzen... eta erantzunik ez nuen jaso. Bi aste pasa ahala, erantzun guztiak jarraian izan ziren eta horietatik 9 irakasle, elkarrizketarako prest zeudenak, lortu nituen. Honekin, ikasi dut agian hobeto joango zela ni eskoletara hurbilduz gero, ze horrela zuzenean helarazten dut nire mezua, nire eskaera, eta ez beste pertsona batzuen bidez. Hala ere, azken horretan ez nuen pentsatu aurtengo egoerarekin, aurrez aurreko kontaktua ekiditeko.

Baina hala ere, oso gustura nago egindakoarekin, lan handia egin dudalako eta oso polita eta positiboa da nabaritzea eta ohartzea prozesu horretaz eta izandako aldaketaz nire arlo pertsonalean zein akademikoan.

7. ERREFERENTZIAK

- 237/2015 DEKRETUA. Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Hezkuntza, Hizkuntza politika eta kultura saila*, 9.zbk. Hemendik eskuratuta: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- ALONSO, I. (2000). Atxikimendu insegurua eta genero rola pertsonarteko mendekotasunaren korrelatu gisa. *UPV/EHU*, 135-145.or. Hemendik eskuratuta: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Itziar_alonso_TESIS.pdf
- ÁLVAREZ, A., VIZCARRA, M.T. eta LASARTE, G. (2019). El significado y la evolución del término <<coeducación>> con el cambio de siglo: el caso de los centros escolares de Vitoria-Gasteiz. *Tendencias pedagógicas*, 34, 62-75.or. Hemendik eskuratuta: <https://revistas.uam.es/tendenciaspedagogicas/article/view/tp2019.34.006>
- AMURRIO, M. (2004). Genero, nazio eta nazio-hezkuntza: ikastoletako irakasleria. *UPV/EHU arg.* ISBN: 84-8373-552-0. 75-130.or. Hemendik eskuratuta: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/MILA_AMURRIO.pdf
- ARIAS, A.M. eta ALVARADO, S. V. (2015). Investigación narrativa: apuesta metodológica para la construcción social de conocimientos científicos. *CES Psicología*, v. 8, 2.zbk., 171-181.or. Hemendik eskuratuta: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=423542417010>
- ARIÑO, M.E. (2009). Gizarte lanean erabilitako metodo, teknika eta dokumentuak. *Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak*, 7.zbk., 39-43.or.
- BERNAD, E. (2010) La influencia de la publicidad en la conformación de la imagen de las mujeres. Desde el punto de vista jurídico. *Igualdad de género en el ámbito público y privado*, 301-320.or.
- BERNAD, E.; MUT, M. eta FERNÁNDEZ, C. (2013). Estereotipos y contraestereotipos del papel de la mujer en la Gran Guerra. Experiencias femeninas y su reflejo en el cine. *Historia y Comunicación Social*, v. 18, 169-189.or. Hemendik eskuratuta: <https://revistas.ucm.es/index.php/HICS/article/view/43421>
- BOURDIEU, P. (2000). *La dominación masculina*. Barcelona: Anagrama. Hemendik eskuratuta: <http://www.nomasviolenciacontramujeres.cl/wp-content/uploads/2015/09/Bondi-Pierre-la-dominacion-masculina.pdf>

BUSTOS, O. (2004). Políticas públicas, medios de comunicación y formación de audiencia crítica con enfoque de género. *Mujer y desarrollo en el siglo XXI: Voces para la igualdad*, Madrid.

CLAVERIA, S. (2018). *El feminismo lo cambia todo*. PAIDÓS.

COLÁS, P. (2007). La construcción de la identidad de género: enfoques teóricos para fundamentar la investigación e intervención educativa. *Revista de Investigación Educativa*, v. 25, 1.zbk., 151-166.or. Hemendik eskuratuta:

https://www.researchgate.net/publication/41570429_La_construccion_de_la_identidad_de_genero_enfoques_teoricos_para_fundamentar_la_investigacion_e_intervencion_educativa

ELOSEGUI, M. (1998). Igualdad y diferencia hombre-mujer según el tribunal Constitucional español. Especial referencia a la interpretación en el ámbito laboral. *Mujeres y Derecho*, Valentzia, 80.or. Hemendik eskuratuta: <https://parlamento-cantabria.es/sites/default/files/dossieres-legislativos/Elosegui.pdf>

EUSKO JAURLARITZA (2019). Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato 2019-2023. *Hezkuntza Saila*. Hemendik eskuratuta: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/es_def/adjuntos/coeducacion/92020191c_II_plan_coeducacion_igualdad_y_buen_trato_2019_2013.pdf

FERNÁNDEZ, D. (2018). Mujeres en el siglo XIX-XX. *Mujeres en la Historia*. Hemendik eskuratuta: <https://www.mujeresviajeras.com/prohibiciones-mujeres-siglo-xix-xx/>

FULLER, N. (2012). Repensando el machismo latinoamericano. *Masculinities and Social Change, Education*, v. 25, 1.zbk., 99-125.or.

GARCÍA-PEÑA, A.L. (2016). De la historia de las mujeres a la historia del género. *Contribuciones desde Coatepec*, 31.zbk. Hemendik eskuratuta: <https://www.redalyc.org/jatsRepo/281/28150017004/html/index.html>

GARCÍA-PRIETO, I. eta ARRIAZU, R. (2020). Estereotipos de género en educación infantil: un estudio de caso desde la perspectiva sociocultural. *Zero-a-Seis*, v. 22, 4-30.or. 10.5007/1980-4512.2020v22n41p4. Hemendik eskuratuta: https://www.researchgate.net/publication/340905809_Estereotipos_de_genero_en_educacion_infantil_un_estudio_de_caso_desde_la_perspectiva_sociocultural

- GORROTXATEGI, M. eta ÁLVAREZ, A. (2017). Genero desadostasuna Haur Hezkuntzan. Irakasleon erronka berria. *Tantak*, v. 29, 1.zbk., 95-122.or. 10.1387/tantak.17867. Hemendik eskuratuta: <https://ojs.ehu.eus/index.php/Tantak/article/view/17867>
- HERNÁNDEZ, G. eta JARAMILLO, C. (2003). La educación sexual en la primera infancia. *Guías para madres, padres y profesorado de Educación Infantil: Ministerio de Educación*. Madril. Hemendik eskuratuta: <http://www.codajic.org/sites/www.codajic.org/files/Guia%20Educaci%C3%B3n%20Sexual%20en%20la%20Primera%20Infancia.pdf>
- LARRAMENDI, I. (2016). Eskoletako jolastokiak eta genero-rolak: Diseinuaren eragina genero-nortasunaren eraikuntzan. *Aldiri*, v. 3, 27.zbk., 18-21.or. Hemendik eskuratuta: https://www.academia.edu/31636457/Eskoletako_jolastokiak_eta_genero_rolak_Diseinuaren_eragina_genero_nortasunaren_eraikuntzan
- LEÓN-HERNÁNDEZ, I.; MARTÍNEZ-ABAJO, J.; GAMITO, R. eta MORALES, V. (2020). Haur Hezkuntzan genero-ikuspuntutik egiten den lanketa. *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 41-61.or. 10.26876/uztaro.112.2020.3. https://www.researchgate.net/publication/339698212_Haur_Hezkuntzan_genero-ikuspuntutik_egiten_den_lanketa
- LEGE ORGANIKOA (1990). Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Lege Organikoa. *BOE*, 238.zbk., 28927-28942.or. Hemendik eskuratuta: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1990/10/03/1/dof/spa/pdf>
- MACCOBY, EE. (1998). The two sexes: growing up apart, coming together. *The Belknap Press of Harvard University Press*, Londres, Ingalaterra. Hemendik eskuratuta: <https://crl.ucsd.edu/~elman/Courses/HDP1/2000/LectureNotes/maccoby.pdf>
- MAGALLÓN, C. (2008). Los conflictos armados desde los roles e identidades de género. *Las prácticas de la resolución de conflictos en America Latina*. Bilbo (Deustoko unibertsitatea), v. 15, 73-82.or. Hemendik eskuratuta: http://www.psicosocial.net/historico/index.php?option=com_docman&view=download&alias=788-las-practicas-de-la-resolucion-de-conflictos-en-america-latina&category_slug=resolucion-de-conflictos-inv-para-paz&Itemid=100225

- MAYO, P. (2019). *El programa SKOLAE, un itinerario para aprender a vivir en igualdad*, 7-20.or., Nafarroa. Hemendik eskuratuta: <https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/coeducacion>
- MOYA, M.G. (2008). Pinceladas literarias para la igualdad de género en educación. *Caleidoscopio, revista de contenidos educativos del CEP de Jaén*, 1.zbk., 131-137.or. Hemendik eskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2745875>
- REBELS, T. (2018). *#Hola Guerrera*, 11-32.or., Bartzelona: Polinyà.
- RODRÍGUEZ, B. (2020). Evaluación de los estereotipos de género en Educación Infantil. *Know and Share Psychology*. Almería, v. 1, 3.zbk., 63-70.or. Hemendik eskuratuta: <http://dx.doi.org/10.25115/kasp.v1i3.3765>
- SALAMANCA, S. (2014). Coeducación, la erradicación de los estereotipos de género en la educación del siglo veintiuno. *Revista-red de Estudios Sociales*, 3.zbk., 84-91.or. Hemendik eskuratuta: <http://iberoamericasocial.com/coeducacion-laerradicacion-de-los-estereotipos-de-genero-en-la-educacion-del-siglo-xxi>
- SALINAS, F. eta LEONA, A. (2016). La agenda pendiente de la educación inicial y preescolar en México: sexualidad integral. *Educación*, 25.zbk., 145-160.or. Hemendik eskuratuta: https://www.researchgate.net/publication/308971833_La_agenda_pendiente_de_la_educacion_inicial_y_preescolar_en_Mexico_sexualidad_integral
- SÁNCHEZ, T. (2009). Desarrollo de la identidad de género desde una perspectiva psico-socio-cultural: un recorrido conceptual. *Revista Interamericana de Psicología*, v. 43, 2.zbk., 250-259.or. Hemendik eskuratuta: <https://www.redalyc.org/pdf/284/28412891006.pdf>
- SONLLEVA, M.; MARTÍNEZ, S. eta BARBA-MARTÍN, R.A. (2019). Las marcas del género en las trayectorias biográficas de las maestras de Educación Infantil. Analizando nuestra historia para desmontar el patriarcado. *Cabás: Revista del Centro de Recursos, Interpretación y Estudios en materia educativa (CRIEME) de la Conserjería de Educación, Cultura y Deporte del Gobierno de Cantabria (España)*, 22.zbk., 47-60.or. Hemendik eskuratuta: <http://revista.muesca.es/articulos22/491-las-marcas-del-genero-en-las-trayectorias-biograficas-de-las-maestras-de-educacion-infantil-analizando-nuestra-historia-para-desmontar-el-patriarcado>

- SUBIRATS, M. (2017). *Coeducación, apuesta por la libertad*. Madril: Octaedro.
- TRAHAR, S. (2010). La atracción del relato: el uso de la investigación narrativa para estudios multiculturales en la educación superior. *Profesorado: Revista de currículum y formación del profesorado*, Bristol, v. 14, 3.zbk., 49-62.or. Hemendik eskuratuta: <https://www.redalyc.org/pdf/567/56715702004.pdf>
- TRUJILLO, G. (2015). Pensar desde otro lugar, pensar lo impensable: hacia una pedagogía queer. *Educação e Pesquisa*, 41.zbk., 1527-1540.or. Hemendik eskuratuta: https://www.scielo.br/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1517-97022015001001527&lng=en&nrm=iso&tlng=es
- VALERA, L. eta PATERNA, C. (2016). Ideología de género en el alumnado de Educación Infantil. *ACIPE, Psicología y Educación: Presente y Futuro*, Murtzia, 2627-2635.or. Hemendik eskuratuta: https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/64415/1/Psicologia-y-educacion_316.pdf
- ZAITEGI, N. eta URRUZOLA, M.J. (1993). Cómo elaborar y seleccionar materiales coeducativos. *Emakunde*. Hemendik eskuratuta: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_folletos/es_emakunde/adjuntos/folletos.e02.como.elaborar.y.seleccionar.materiales.coeducativos.pdf
- ZINKUNEGI, I. (2015). Emakumeak eta bertsoaritza. Gaiak, rolak eta bertsoak genero-ikuspuntutik. *Uztaro*, 91-112.or.

8. ERANSKINAK

1. ELKARRIZKETA

(E1, 31 urte, Ataun, Barrutia)

Iratxe: Bale, ba lehenengoa, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E1: Ba, gehienbat lotzen dut genero-rolak ba egunerokotasunean sortzen diren umeen komentarioekin. Zerbait pisutsua mugitu behar bada, mutilen laguntza eskatzen dute, edo etxeke edozein komentarioa "Mi mamá suele fregar los platos y pone la comida y mi padre está con el móvil en el sofá". Baina saiatzen naiz umeren batek esaten badu komentario bat, inkonzienteki ere, momentuan ikusiarazten diot zer esan duen, nahigabe esan du... Ba hori, zerbait pisutsua mugitzeko, ba mutil batengana jotzen dute eta esaten diot "Uy, ba goazen probatzera neska batekin!" eta saiatzen naiz berak ikusiarazten esperientziaz ba neskak ere badugula sasoia.

Iratxe: Bai, hori egia da, ze azkenean nik uste guztiok noizbaiten egiten dugula komentarioren bat eta hobe da norbaitek esatea "Eh, kontuz".

E1: Bai, eta nik zuzentzen dut, ahalegina egiten dut ikusten dudanean, baina ziurrenik ere, baten bat izango banu ni entzuten, egunero esango dudala baten bat.

Iratxe: Bai bai, ze azkenean hori, bizitzan zehar izan dugun edo ditugun gauzak dira eta...

E1: Bai.

Iratxe: Bale ba, hori begira, zein iritzi duzu genero-rolari buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolen inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E1: Ba genero-rolak, generoa, neska, emakumea, gizona, neska-mutila... ezta? Horrela ikusita, eta bakoitzari gizarteak egokitu dizkion rolak, ba alde batetik kirolak, lanbideak, eginbeharrekoak... lotzen dut horrekin. Nik esan dezaket gure familian emakumean izan duela indar handiena, ama batekin bakarrik hezi naizelako. Orduan txikitatik jaso dudana heziketa da nik bakarrik aurre egitea bizitzari, bai ekonomikoki, edo edozein arazoren aurrean nik bilatzea konponbidea. Eta orduan, ez dakit, aldaketa handirik ez, ba nik horrekin jarraitzen dut. Gero baita ere, izan ditudan afizioak edo automobilekoak izan dira, "rally"-etan ibilita ba, beti mutilez inguratuta, baina garbi izanez hori ez dela mutilena bakarrik. Orduan oso barneratuta dut ni beraien parekoa naizela, gainera askotan indar egiten nien. Ez naiz gutxiago edo horrelakorik.

Iratxe: Bai, hori ondo dago ikustea, eta jakitea ere garrantzitsua da.

E1: Bai, orduan behin eta berriz nire amak eta ingurukoak eman didaten heziketa hori sartzea gustatzen zait eskolan.

Iratxe: Bale, ondo bai. Hirugarrenik, ya pixka bat erantzun duzu baina bueno, zer edo zer gehio okurritzen bazaizu... Nola lantzen dituzu genero-rolak klasean hurrekin? Adibidez, zuk erabiltzen duzun hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketak...

E1: Ni ba ipuinez baliatzen naiz. Ez da bakarrik gelditzen gure hausnarketa hori, niri gustatzen zait gelan landutakoa familiei helaraztea. Adibidez "Urtaburutarrak" ipuina kontatzen dudanean, gero esaten dut, "bueno, proiektu txiki bat egingo dugu nola etxeko edo familia inguruko lanen banaketa horrekin", eta esaten diet nahi badute parte ba galdetegi batean, ezta? Galderak liburuetan agertzen direnak, ba "Nork jartzen du mahia? Nork garbitzen ditu platerak? Nork sukaldatzen du?". Orduan, ez bakarrik umeak, familiek ere hausnartzen dute.

Iratxe: Ya...

E1: Eta orduan gustatzen zait umeekin bakarrik, ba azkenean horiekin lantzen dituzu eta bazoaz pixkanaka-pixkanaka heziketa bat ematen, baina ez badago etxetik pentsamendu berdina ba azkenean etxekoak irabaziko du.

Iratxe: Ya, bai, hori da, azkenean pentsatzen dugu ez dakit, bakarrik hurrekin hitz egin behar dugula, baina askotan familiak du eragin handiena gaur egun.

E1: Bai, eta orduan ekintza txikiak bideratzen ditut baita familiei egokituta. Pentsatu zerbaitetarako balio dutela, behintzat hausnartzeko.

Iratxe: Bueno, behintzat...

E1: Eta gero, bestalde, egin nuen genero eta hezkidetza inguruko ipuinak. Kontatzen ditugun ipuin pila bat prototipo mutil indartsua da, agintzen duena, eta pixka bat emakumea sumisago, ba saiatzen naiz adibidez antzerkia egiterakoan, ba adibidez lau anaien ipuina. Oso sinplea da testua gidoia antzetzeko, baina konturatzen nintzen, hartu nuen gidoia eta esan nuen "lau anai, ostalaria gizona, etxean agintzen du aitak... eta zergatik lau anai?". Horrela dago idatzia, ba bueno, nik gelan egiten ditudan antzerkiak ipuin moldatuak izaten dira.

Iratxe: Bale ederto, hori ideia ona da.

E1: Bai.

Iratxe: Bale ba laugarrena, zer egin daiteke genero-rolek neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E1: Ba nik uste dut funtzionatuko lukeela jolas kooperatibok asko eta ikustea neska edo mutila izanda ere, elkarren beharra dutela. Lau urteko geletan bai ematen da, bueno, bost urtekoetan igual gehiago ikusi dudala "En este equipo las chicas no".

Iratxe: Ya...

E1: Hiru eta lau urtekoetan ba bueno, oraindik ez dute astakeriak esaten.

Iratxe: Bai, pixka bat igual denetarik egongo da, ez?

E1: Bai, eta gero adibidez, animalien inguruan ere behin egin nuen ariketa bat. Kuriosoa izan zen, neskek aukeratu zutela ez hain animalia agresiboa, eta mutilek ba lehoia... ba bueno, pixka bat indartsuak. Neska batek, ohontza bat aukeratu zuen eta hasi ginenean egiten ekintza hori, harrira iritsi ziren eta benga, "animali bakoitzak zer egingo luke?". Lehoiak hasi ziren hatzaparka egiten, eta ohontzak bitartean hegan, harrira pasatu zuen eta inor baino lehenago iritsi zen. Eta hor ere landu genuen pixka bat animalien izaera eta ere indarkeriak ez duela beti funtzionatzen. Eta pixka bat animaliak edo horrelako zerbaitekin lotzen baduzu, errazago ulertarazten zaie ikasleei.

Iratxe: Ya, bai bai, aukera ona da... Bostgarrena, Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero-rolari dagokienez?

E1: Lehenengo eta behin, erabiltzen duen lexikoa edo hiztegia, edo lehen esan ditugun komentario horiek, ezta?

Iratxe: Bai.

E1: Azken finean, oso erraza da guretzako esatea, "ipuina hemen dago, gidoia ere bai, ba horrela egingo dut". Baina horrekin ez gara konturatzen atzetik zenbat gauza galtzen ari diren; landu genezakeen genero-rolak eta genero ezberdintasunak. Ba bueno, gogo eta motibazioa izatea gauzei buelta emateko, hori izan behar du irakasle batek nire ustez.

Iratxe: Bai, adibidez, horri begira, guk adibidez, bueno, ni begiralea naiz eta haurrak Lehen Hezkuntzakoak dira eta egiten dugu hori, tradizioz izan ditugun ipuin horiek hartu eta benga, pixka bat ikuspuntua aldatzea, eta azkenean, bueno, ere adinaren arabera, baina haiek ere badakite ba igual aldatu behar direla ipuin horiek, ez beti emakumea gizonak babestu behar duela, ez dakit...

E1: Bai...

Iratxe: Lanari begira, adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eta eskolak badauka hezkidetzaren planik edo protokolorik hori lantzeko?

E1: Orain arte, Nafarroan ibili naiz, hor bizi naizelako eta bai, bueno, ba Nafarroako gobernuak izan duen SKOLAE programa eta hezkidetzarako material ugari banatu zen, irakasle guztiak formatu ginen eta bai dagoela hezkidetzaren edo genero-rolak eta oso oso antolatuta eta material pila bat adinkatuta ordenatuta. Gure eskolan nik nire proposamenak botatzen ditut baina ez dakit hori dagoenik. Nola hiru urtez lan egin dudan SKOLAE-ko material horrekin, ba "base de datos" hartu nuen eta "voy tirando de ello". Baina hemen ez, ez dakit. Eta beste galderak ziren...?

Iratxe: Bai, ea adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak diren ikusi duzun, ea zertan eta nola aurre egiten duzun horien aurrean.

E1: Zorionez, astakeririk ez dut entzun, lankideen hitzetatik. Ez daukat ezer berezirik esateko.

Iratxe: Bale, lasai, listo. Ba zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E1: Ba uste dut ez dela nahikoa lantzen, egunerokotasunean bai gauza batzuk. Nik uste dut oso interesantea dela Nafarroako ikastetxeetan bezala, SKOLAE programak antolatuta duen bezala, edo finkatuta dituen ekintza horiek izatea txosten batean eta urtean zehar horietako ekintza batzuk eginbeharrekoak jartzea, irakasle bakoitzaren esku, noski.

Iratxe: Bai, hori bai...

E1: Orduan antolatuagoa izatea gustatuko litzaidake.

Iratxe: Ah, bale bale. Eta azkenik, hau pixka bat luzea da, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero rolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta, aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E1: Ba, esango nuke baietz, belaunaldi horiek ez ez zutelako landu gai hau, adibidez badituz lankideak nik baino beste belaunaldi batekoak eta bueno, garaiak aldatzen doazen heinean, gizartea aldatzen doa ere, material berriak ari dira sortzen ere, badago dexente, orduan prest daude hori lantzeko. Urteak atzeragotaz, zergatik ez zuten landu gehiago gai hau? Ba bueno, beste gauza batzuei eman zitelako lehentasuna, edo ez dakit zergatik. Baina ni saiatzen naiz, ikusten badut holan pixka bat "reacia a eso", ba benga, pixka bat nik ere...

Iratxe: Animatu pixka bat, ezta?

E1: Bai. Tentatu, animatu, "benga, lagunduko dizut nik...". Nik badudalako jarrera hori, ba motibazio hori, hau benetan lantzeko.

Iratxe: Bueno, hori azkenean pauso handia da, ze igual zure lankide batek ez du nahi edo ez du ikusten motibazio hori eta zu hor zaude animatzen "Benga ba denok batera...".

E1: Bai. Eta gero beste gauza bat, bai garrantzitsua iruditzen zaidala baten bat gaixo baldin badago, osea ume bat gaixotzen da eskolan, "benga, amari deitu behar diot" ezta?

Iratxe: Bai, normalean bai...

E1: Ba ez, nik lehenengo gauza egiten dudana da ume talde bat hartzen dudanean aita-ama edo bueno, batzuetan nola ez da egoten ez bata edo bestea, ba esaten dut familia. Guraso-bilerak ez, familia-bilerak esaten dut nik. Eta horretan jasotzen dut amaren telefonoa, aitaren telefonoa eta emailak ere bai. Eta ya normalean esaten dizute "Yo estoy trabajando... deitu amari". Bale, baina bai askotan izaten bada deia, saiatzen naiz zenbatzen "Bale, aurrekoan amari deitu nion, ba orain aitari deituko diot" hori lehenengo behintzat, amari ardura hori ez emateko. Eta emailak ere, beti bienak eskatzen ditut eta beti biei batera bidaltzen diet mezua.

Iratxe: Bai, egia da nik hori ikusi dudala praktikan, beti "ume hau ez dator, benga, ba amari deituko diot ea zer gertatzen zaion..." eta azkenean, hori pixka bat normalizatua izan dugula hori.

E1: Bai, eta jostailu bat puskatzen zaio eta esan dezakegu "Ba etxean konpontuko dute, edo aitak konponduko du" eta amantaleko botoi bat askatzen bada "amak joziko du".

Iratxe: Ya, bai bai...

E1: Ba ez, ez. Ya sartu zaizkit gauza batzuk, entzuten badituz eta esaten dut "bfff", belarrietako mina eragiten didana.

Iratxe: Bai, hori pixkanaka-pixkanaka...

E1: Nik uste lantzen badugu lehenengo pertsonalki hasita, eta gero gure ikasleei eta lankideekin, ba bueno, urte batean ez, bitan ere ez, baina luzeran nik uste aldaketak emango direla.

Iratxe: Bai, hori bai... horrekin esan duzuna, nik adibidez aukeratu nuen gai hau ze bueno, genero rola bai, badakit pixka bat... orain ere teoria bilatuz ba pixka bat ulertu dut gehiago, baina zen pixka bat nik ez dudalako nahi egunerokotasunean, eta batez ere gero Haur Hezkuntzako gela batean, ni bere erreferente bezala, ez azalerazte komentariorik, jarrerarik, eta azaldu nahi dizut horregatik ere hartu dudala gai hau, eta horregatik ere zurea eta beste irakasleen bizipenak kontuan hartu nahi ditudala ba igual pixka bat ere zuetaz ikasteko.

E1: Ya... Nik asko ikasi nuen SKOLAE formakuntza horrekin, aurretik... antzerkiak ziren bezala, "ala, begira ze ipuin polita"... eta sartzen ari nintzen atzetik ba balore batzuk, nahi gabe konotatzen ari nintzenak, eta hori hausnartuta, ba bai, buelta handia eman diot.

Iratxe: Eta hori Nafarroan egiten da bakarrik?

E1: Bai, eta elkarrizketa hau egingo bazenidan duela 6 urte, ba gauza asko ez nizkizuke esango eta egin ditudan mila ekintza ere ez. Alde batetik, nire ama izango zen, nik ez dudanez izan aita figura hori ez zainketan, ez ekonomikoki... Gizonaren rol hori ez daukat, orduan beti ama jarriko nuen.

Iratxe: Bai, baina bueno, zu ere kontziente bazara pixka bat zure aldaketaz, ondo.

E1: Ah bai bai, eta egindako formakuntza batean, ba adibidez ikusi liburutegian bai etxean dituzunak eta eskolako liburutegiak eta "joder..." ez da bat ere libratzen.

Iratxe: Bai, nik fijo orain etxean ditudala...

E1: Bai, eta orain ba bai, fijatzen naiz zertaz doan.

Iratxe: Bai, bueno, orain pixka bat liburu horiek ere aldatu egin dira.

2. ELKARRIZKETA

(E2, 40 urte, Gasteiz, Odon de Apraiz)

Iratxe: Bale, hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E2: Bueno, ba sistema heteropatriarkatu batean bizi gara eta orduan pairatzen dugun botere-harreman batean bizi gara. Sistema horrek beste batzuk menpeko hartzen dituen, horretarako baliatzen ditu generoak, oso txikitatik egituratzen ditu bi generoak, gizartea banatu egiten du bi genero

nagusitan eta genero-rolak dira norbanakoari ezartzen zaizkion rolak. Nahiz eta beste genero danak egon zitezkeen, edo sexuan ere bai, sistema, egun, tamalez, bitan da eta pertsonen segun eta emakumezko edo gizonezko kasu honetan, zer rol ezartzen zaizkion. Non ikusi dezakegun hori geletan?

Iratxe: Bai...

E2: Ba, koloreetan, umeak jartzen dituzten arropen koloreetan. Txorakeria dirudi baina hortik abiatuta ya gauza guztietan, ezta?

Iratxe: Bai, ze hori ere pixka bat familiarena da, ez? Familiek erabakitakoa da normalean.

E2: Bai, baina sistemarena da. Familiek oso zail daukagu hortik ateratzeko, sistematikoa da, orduan posible duzu beste nonbaiten egituratzea baina zu zaude kultura batean, non hori guztia pairatu izan duzun eta ezarrita dagoen, orduan saiatuta ere, distantzia hartzen, ba igual batzuk ya hartuak dituzu eta hori transferitu egiten da.

Iratxe; Bai egia da...

E2: Nik Haur Hezkuntzan egiten dut lana, eta emakumea eredu horiek ikusten dituzte, eta gauza batzuk aldatzen baldin badaude ere, kriston lana dago oraindik ere. Hori gutxinaka gutxinaka aldatuz doa, eta beste era bateko materialak sartuta edo zaintzei beharrezkoa duten garrantzia emanda, ume guztiek jolasten dute haien artean.

Iratxe: Eta adibidez, klaseetan, haien artean genero-rol horiek ikusi dituzu?

E2: Nik ez dut ikusi, baina ez du esan nahi gertatzen ez denik. Adibidez ume ez hain txikiekin, familien erantzunetan ikusten duzu gehiago, "ez margotu azazkalak nire umeari, nire mutilari".

Iratxe: Bale, bai... Bigarren galderarekin jarraituz, zein iritzi duzu genero-rolen buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolen inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E2: Ez da askorik aldatu nire perspektiba bizitzan zehar, baina beti izan dudalako kokapen bat generoaren hausturaren aldekoa. Txiki txikitatik pairatu izan dut genero-rolak ezartzen zutena, nik txikitan ile motza, gustatzen zitzaidan zakila zutenekin jolastea, mugimenduan jolastea, ez zitzaidan gustatzen soinekoak janztea, eta gertatzen zitzaidan neskek ez zutela nirekin jolastu nahi, uste zutelako mutil bat nintzela eta mutilek ez zuten nirekin jolastu nahi uste zutelako neska bat nintzela.

Iratxe: Bai, bai...

E2: Genero aldetiko bizitza politizatua eduki dut nire inguruan ordutik igual, eta orduan ba ez dut uste aldatu dudarik askorik, oso txikitatik konturatu nintzelako bat ez nentorrela, etxean beste egiteko modu bat zegoen. Bai egin dudana da borrokatu, nire burua formatu urteetan eta urteetan.

Iratxe: Bai, pixka bat igual txikitako izandako esperientziagatik, ez?

E2: Bai, izan daiteke... eta ere egon naizela aisialdi talde batean, non beste perspektiba irekiago bat zegoen, gai askori buruz hausnartzen genuen, oso eraginkorrak... orduan aukera eman zait zalantzak ipintzeko oso txikitatik.

Iratxe: Bale, ba hori ondo dago... Hirugarrenik, nola lantzen dituzu genero-rolak klasean haurrekin? Ba adibidez erabiltzen duzun hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketak...

E2: Hizkuntza bai, hizkuntza inklusibo bat integratzen saiatzen naiz. Normalean, gelan euskaraz hitz egiten dut, baina familia batzuekin ba gazteleraz hitz egiteko beharra izaten dut, komunikazioa bermatzeko. Txorakeria izan daiteke, baina nik "kriatura" hitza erabiltzen dut, eta horren inguruko azalpen bat ematen diet familiei, genero identitatea eraikitzeaz daude, oraindik umeak bi urteko gelan daude, eta eman nahi diet aukera hori eraikitzeko. Nik badakit zein genitalitate daukaten, baina ez dakit genero identitate batean jarriko diren edo ez, eta errespetuzkoagoa iruditzen zait "kriatura" hitza erabiltzea. Materialari dagokionez, oso jostailu gutxi erabiltzen ditut, ba beste era bateko materialak erabiltzen ditut. Gero beti dago espazio bat non eurek ere esperimintatu dezakete zerbait zaintzen, bai landare bat, edo panpinak eduki... beste era bateko jostailuak sartzen badira ere bai, denontzako dira, ume guztiek erabili ditzakete.

Iratxe: Ba bai, hori guztia egia da.

E2: Nik egunero noa komunera umeekin eta orduan ba dena aipatzen dut eta hitzez esaten dut "Bai, hor daukazu zure alua, gustatzen zaizu ukitzea, polita da? Zuk ez daukazu, berak badauka...". Horri ere ematen diot leku bat.

Iratxe: Bai, interesgarria da hori ere bai. Bueno, ba hirugarrenik, zer egin daiteke genero-rolak neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E2: Esan behar dut hor eskolak zerbait egin behar duela, baina ezin da eskolaren gain utzi, arazo sistemiko bat delako. Eskolak haurrek bere bizitzaren parte bat ematen dute, eta arduraz gehiegi ezartzen zaizkio eskolari. Egia da eskola orduetan denbora asko ematen dugula baina kanpoan ere askoz handiagoa.

Iratxe: Bai, bai.

E2: Nik bere garaian generorik gabeko eskola baten aldeko apustua egiten nuen, bai, Finlandian badaude batzuk. Uste dut generorik gabeko eskola batek gauzak erraz ditzakeela, baina uste dut era berean, nola sistema eraikia dagoen eta botere-harreman hori ezarria den eta biolentzia eta desoreka oraindik ere oso handia den, egin beharko litzateke aurrena eskola planteamendutik esaten dut, ze sistemak egin behar ditu gauza asko, diru asko inbertitu...

Iratxe: Bai bai, hori bai.

E2: Eskolan maila guztietan, ekarrita ereduak inoiz egon ez direnak eta eskoletan errepresentatuak, "emakume kirolariak"... Mutilengan ere bai, beste adierazle batzuk eskaini eta irakatsi beraiek ere horrela egin dezaketela, emozioei leku egin, emozioen lanketa handi bat, eta negar egiteko eskubidea bermatu pertsona guztiei, eta laztandua izateko eskubidea bermatu pertsona

guztiei, ez bakarrik alu bat daukaten horiei. Bere garaian, auto-behaketa lan bat egin genuen haur eskola batean eta hain inkontzientea zen sistemaren barneratzeaz konturatu ginen grabaketen bidez. Ume batek mina hartzen zuenean, ume guztiak hartzen genituen askotan, eta laztandu... baina denbora neurtzen genuen eta zakildunak bidaltzen genituen jolasera arinago.

Iratxe: Bai...

E2: Oso lan zorrotza egin genuen, baina hori ere egiten dugu konturatu gabe, hitz egiten ere gauza gehiago aipatu aludunek zakildunek baino. Eta horrela eraikitzen da neskek hitz egiten dutela gehiago eta mutilek ez. Uste dut eskolak alde horretatik bai ereduak jarriaz, bai emozioei lekua eginaz, eta bai biolentzia ba salatuz eta bakeguneak eraikiz, eskolak izan dadila plazergune bat umeentzako. Lagundu ume bakoitzari eta hori indartu, beste bide batzuk posible direla erakutsiz.

Iratxe: Bai, hori, pixka bat batzuetan inkontzienteki egiten ditugu guk ere bai sailkapen horiek eta dena... Bale, bostgarrena, Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero rolei dagokionez?

E2: Lehenengo ikasi, asko ikasi eta bere burua zalantzan jarri eta bere burua behatu eta bere burua grabatu eta lankideekin hitz egin, eta berriro bere burua zalantzan jarri eta berriro ikasi. Zuk ezin duzu eskola feminista bat, generoaren kontra egiten baduzu lan perspektiba politiko bat da eta horrela behar du izan. Lehenengo zure burua aztertu behar duzu eta ikusi zer den egiten ari zarena.

Iratxe: Ba egia esan, bai...

E2: Egin behar da hausnarketa handi bat, ze gauza asko guk ere sistemaren barne gaudenez, guk ere gertu bizitzen dugu hori, eta Haur Hezkuntzan genero identitatea eraikitzen ari direnez, ba oinarrizkoa da formakuntza polit bat izatea, elkarlanerako eta gero ere eztabaidarako esparruak eraikitzea. Niretzako hori, formatu, elkarlanean lan egin eta gero ba materialak aztertu, umeekiko begirada esterotipatu gabea, aukerak eskaini, baina horretarako formatu egin behar zara lehenago eta ikusi zer egiten duzu eta nondik hobetu dezakezun.

Iratxe: Ba guztiz ados. Nik adibidez galdera hau ikusita, ni irakaslea izango naizen heinean, hori pixka bat aukeratu dut gai hau nik ere bai zuetaz edo elkarrizketa hauetaz ere ikasteko, ze bai, badakizkit gauza batzuk, baina igual ez nago hain formatuta, eta horregatik aukeratu nuen lan hau, ze nire Haur Hezkuntzako gela batera eraman nahiko nuke pixka bat hau guztia...

E2: Ba hemen naukazu behar duzunerako, eh. Aurrerago ere behar baduzu zerbait, hemen nago. Zerbait behar baduzu emailaz behintzat erantzungo dizut.

Iratxe: Bai, ba mila esker... Ba bueno, seigarrenik, adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eta eskolak badauka hezkidetzat planik edo protokolorik hori lantzeko?

E2: Bueno, ba adin desberdintasuna somatzen da, baina gaur egun, eskola hauetan, hausnarketarako gune asko daudela uste dut, elkarlanerako eredu asko daudela uste dut ere bai, eta orduan gauzak zainzen dira, eta jendea elkarren artean zaintzen da, eta bueno, zerbait ikusten bada, hitz egiteko aukera dago. Elkarlana hezkuntzan derrigorrezkoa da. Hezkidetza planik ez dago eskola honetan, dago elkarbizitza plana, eta horretan badago generoa edo hezkidetza integratua. Nik ez dut ia desberdintasunik ikusi, baina bai ikusi dut oso errespetuzko jarrerak daudela orokorrean, behintzat Haur Hezkuntza.

Iratxe: Bale, ados. Zazpigarrenik, zure ustez, nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E2: Inoiz ez da nahikoa. Uste dut ez dela nahikoa egiten dena. Uste dut hori, ere bai, behintzat eskola mailan, lan ibiltzen garela denboraz eta hausnartzeko gune gehiago behar genituzkela, bai guzti honekin eta gai hau mahai gainean jarri eta tresna komunean jartzeko. Ez dago denborarik, baina egotekotan, gure ordu lektiboetako batzuk talde hausnarketarako jarriko nituzke eta hori mahai gainean jarri eta beste maila bateko aditu batekin bide hori egiteko aukera balego, ba horrela, gure burua zalantzan jarri, behatzen eta hori Iratxe, niretzako formakuntza eta elkarlanean aritu.

Iratxe: Batez ere aldaketa horiek egiteko, ezta?

E2: Bai, hori da.

Iratxe: Bale, eta azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero-rolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E2: Bai. Alde handia dago nire amaren belaunalditik nire amak eta nire aitak pauso batzuk eman zituzten. Orduan aldaketa egon da, nire inguru handi bat izan da genero-rolen inguruko borroka pisutsua, eta horretan zerbait gertatu da. Eta hurrengo belaunaldia hausnarketa haratago eramana da. Nik somatzen dut jendea formatuagoa. Orain uste dut zabalduagoa dagoela, ze ikustean azken urteetako mobilizazio feministak eta egon diren mobilizazio erraldoietan ba jendea bazegoen. Niri hausnarketa eremuak eskaini zaizkidanean uste dut gazteak nola datozen eta esaten dut "Aupa zuek!". Badakit ere biolentzia birproduzitzen dela beste gune batzuetan, baina bidea oso luzea da, eta uste dut aldatzen ari dela, baina aldatzen jarraitu behar duela ere bai.

Iratxe: Bai, hori bai...

3. ELKARRIZKETA

(E3, 44 urte, Hernani, Barrutia)

Iratxe: Hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E3: Askotan agertzen dira genero-rolak, eta batzuetan ere guk inkontzienteki...

Iratxe: Bai, ateratzen zaizkigu, ezta?

E3: Bai, esaten diezunean hurrei adibidez, "txamarra honek ez du izena, esan amatxori edo aitaxori jartzeko", baina igual etxe batzuetan ez daude amatxo eta aitaxo. Ni adibidez saiatzen naiz esaten "etxekoei". Hala ere, hain barneratuta ditugun gauza batzuk ateratzen zaizkigu nahi gabe eta beraiangandik etortzen dira ba... eskola batean azkenean ume desberdin asko dituzu, familia-eredu desberdin asko dituzu eta beraiek jasotzen dutena esaten dute, oso txikiak dira.

Iratxe: Ya... azkenean gizarteak horrela irakatsi digu.

E3: Bai, denoi. Baina bai, ikusten dituzu, aurten igual ez hainbeste baina gogoratzen dut ume batekin hitz egiten eta nik askotan galdetzen dut "eta nork fregatzen du etxean? nork egiten du bazkaria?" eta "no no, mi papá no friega" esaten zuen.

Iratxe: Ya, bai... ohikoa den bezala jartzen dute.

E3: Bai, beraiek oso barneratuta daukate eta barneratzen baldin baduzu, "repites patrón".

Iratxe: Bai, bai... bale ba, zein iritzi duzu genero-rolari buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolari buruzko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E3: Bai, aldatu da. Kontzienteagoa zarelako gauzetaz eta emakumea naizelako ere bai. Emakumetzen zoazen heinean, ikusten dituzu gauzak desberdin, ez?

Iratxe: Bai...

E3: Nik uste aldatzea baino gehio izan dela kontzientzia hartzeko prozesu bat urteekin eta amatasunarekin ere bai.

Iratxe: Bai, pixka bat esperentziaz baliatuz, ez?

E3: Bai. Nik inoiz ez dut izan horrela esperentzia txarrik genero-rolen inguruan, ba nire familian ere nire ama beti egon da lanean eta 3 anai-arreba gara eta hirurak hezi gaituzte modu berdinean, baina igual gizarteak dituen genero-rolak kontzienteagoa izan naiz adinarekin.

Iratxe: Bale, berez ez duzu egin formakuntzarik edo, ez?

E3: Ah, ez ez ez, bizitzak emandakoa.

Iratxe: Bale, ederto. Eta nola lantzen dituzu genero-rolak klasean hurrekin? Ba erabiltzen duzun hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketa...

E3: Saiatzen naiz asko hitzez egiten eta uste dut asko egin behar dela eredu izaten pixka bat. Ni jolas librearen aldekoa naiz taldekatzearena baino. Denboraren aldetik ez hain beste, saiatzen naiz gauza asko lantzen korro handian, talde osoa daukagunean. Ba hemen denok garela berdinak, eta gero garela politikak eta azkarrak, bakoitza bere modura.

Iratxe: Bai, hori azkenean zuk ere beraiei esatea, garrantzi handikoa da.

E3: Bai, bai. Eta gero askotan sartzen dizkiet ba nire bizitza pertsonaleko adibideak. Ba gogoratzen dut egun batean eskolan neska bat buzti zen eta ez zuen nahi galtza urdinak janzea "porque son de chico". Eta bueno, ez zegoen besterik eta jarri nizkion galtza horiek, eta gogoratzen dut hurrengo egunean ba bueltak ematen koloreen inguruan... eta esan nien "Nire senarrak jartzen du alkandora bat arrosa, dagoela guapísimo", eta umeei flipatu zuten. Ba horrelako gauzak esaten dizkiet azkenean normaltasuna ematen diet.

Iratxe: Ba bai, ba horrekin oso ondo... Bale, ba laugarrenik, zer egin daiteke genero-rolak neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E3: Egin, egin behar dugu guk eskolan ahal duguna eta batez ere etxean egin behar da. Bueno, gizarteak ere egin beharko luke baina etxean ikasten dira gauza horiek. Nik argi daukat.

Iratxe: Eta adibidez familiarekin hitz egin edo?

E3: Bai, ikusten baldin baduzu... Gero egia da naturalki, nahiz eta zuk gelan dena berdina landu eta, hasten zarela ikusten neska eta mutilak aritzen direla jolas desberdinetan, beti daude salbuespenak, baina mutilak beti hasten dira egiten jolas bat borrokatzeko eta neskek egiten dute beti jolas mota bat ba sinbolikoa. Nik uste dut eskolan lehenengo egin behar duguna da guk geuk mentalizatu, zertan egiten dugun gaizki eta zertan ez, eta gero umeei berdintasun mezu bat edo zabaldu bai jolasetan, bai koloreetan, bai materialetan, bai denboretan eta bai kulturatan.

Iratxe: Bale ba.

E3: Familiarekin hitz egin dut kasuren bat, oso deigarria edo... ni gurasoekin elkartzen naizenean ba beti hitz egiten duzu gai honetaz, baina klaro...

Iratxe: Bai klaro, pixka bat kontrolatu behar duzu hori, ez?

E3: Bai...

Iratxe: Bale, ba Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero-rolak dagokienez?

E3: Ba suposatzen dut bere bizitzako esperientziak onartu eta oinarritu horietan eta nik uste dut kontuan izan behar dugula guk ere bai lehen komentatu dizudan hori, genero-rolak lantzea oso ondo dagoela baina badaukagula zerbait hor genetikoki pixka bat desberdina, ez dut esaten potentziatu behar dela eh, baina iruditzen zait hainbeste ume ikusita nire bizitzan badagoela zerbait... ez dakit instintiboa den edo zer den, baina badago zerbait bereizketa horretan. Hori onartu behar da

ere bai, nik uste dut genero-rolak edo berdintasunak ez du kentzen gure emakumea edo gizontzea ere potentziazten da. Emakumea gara, bueno, hori bakoitzak erabakitzen du, ezta?

Iratxe: Bai, bai.

E3: Niretzat inportantea da beraien gorputza eta burua errespetatzea, ze ez baldin badute beraien burua eta gorputza errespetatzen, ez dira gai izango beste inorena errespetatzeko.

Iratxe: Ba bai, hori egia da.

E3: Ba horri garrantzia eman, denok politak garela, ba pixka bat alde positibotik, altuagoak, baxuagoak, gorputzaren naturaltasuna ere bai... eta gero dagoen dibertsitatea landu, ze aurreko batean ere panpinen txokoan jolasten ari ziren umeak eta "zer gertatzen zaizue?", "pues que yo quiero ser la mamá y ella también quiere ser la mamá", "eta?", "pues que si yo soy la mamá, ella no puede ser la mamá", "eta zergatik ez?" ba, badaude familiak bi amak dituztela eta "ella puede ser lo que quiera", jolas bat delako eta nahi duena izan daitekeelako.

Iratxe: Bai, baina hori tradizionalki den familia heterosexual hori...

E3: Bai, egia da familia tradizional asko daudela, gu lehenengoa. Gutxienez kontzientea izan gaitzela, igual familia rol horiek aldatu daitezkeela pixka bat.

Iratxe: Bai, bale, ba seigarrenik, adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eskolak badauka hezkidetza planik edo protokolorik hori lantzeko?

E3: Baina leku askotan egoten dira hezkidetza arduradunak, hemen ere egongo da, plana badagoen ba ez dakit, ez dit denbora eman begiratzeko.

Iratxe: Eta adibidez hori, zure lankideekin adin desberdinagatik genero-rolak nabariak dira?

E3: Ba ez, lankideekin ez dut inoiz, egia esan haur hezkuntzan ez, nik uste gehienak gaudela kontzientiatuta, bakoitzak egin behar du egin behar duen lana. Ba ez dut inoiz holan desberdintasun nabaririk somatu, eta azkenean ere somatzen baduzu desberdintasun bat, nik nire taldearekin uste dudana egin behar dela egingo dut.

Iratxe: Bai, hori azkenean... Ba bueno, zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E3: Bueno, Haur Hezkuntzan ez dira gaiak lantzen, Haur Hezkuntzan nik uste egunero eta une oro gaudela gai asko lantzen.

Iratxe: Bai...

E3: Agian formakuntza gehiago eman irakaslegoari, ba igual bai, estrategiak emateko ba igual umeen arteko gatazkaren bat edo sortzen denean, ba nola jokatzeko... hori igual ez zegoen gaizki egongo. Baina aldatu, ba aldatuko nuke hezkuntza-sistema osoa...

Iratxe: Ba igual bai... Bale ba, azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak generorolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E3: Bai, gehiago dakartza zuena. Baina guk gure aurreko belaunaldiarekiko nik uste dut egin direla gauza asko. Egia da baita ere gure aurreko belaunaldian hezi zirela emakumeak lanean, hasi zela feminismoa eratzen eta asko ikasi dugula eta eredu asko izan ditugula gure belaunaldi aurreko emakumeengatik.

Iratxe: Bai, pixkanaka-pixkanaka...

E3: Baina nik uste dut gure belaunaldiak, edo ni behintzat, nire belaunaldian ere "pues hay de todo" baina ni erlazionatzen naizen jendeak genero-rol ikuspuntua badu. Baina bai egia da betidanik egon direla gauzak "que me han chirriado", esaten duzula "hori ez zait gustatzen".

Iratxe: Bai, hori, azkenean ez du zertan izan formakuntza egotea, baizik eta ere esperientziaz baliatuz eta beti daukazu "jope, orain dela bi urte egin nuen hau eta orain ikusten dut eta ai ama..." eta hori, guk ere kontzienteak izatea.

E3: Amatasunak gainera asko lagundu nau. Hala ere, esango dizut gauza bat, ikusten dut kanpotik nire familia eta guk ere genero-rolak baditugu, gu bizi garen etxeko "txapuza" guztiak nire senarrak egiten ditu, egiten du egurra, egiten du tailerra jaso... eta ni egoten naiz umeeekin. Ba bueno, bada genero etiketa bat.

Iratxe: Bai, hori bai.

E3: Inkontzienteki? ba igual bai, gero nire senarrak garbitzen du, fregatzen du eta egiten du guztia.

Iratxe: Bueno, ba behintzat gero kontzienteak bazarete...

E3: Bai. Umeen zaintzaren asuntua ba izan ditu berak ere bai eh, baina badakiena noiz daukaten gimnasia ni naiz, badakiena zein egunetan daukaten azterketa, ni naiz... Beste gauza batzuk berak kontrolatzen ditu.

Iratxe: Ya, bai bai...

E3: Esan nahi dut, ahoa daukagu pixka bat handia, oso polita dena baina hemen denok dauzkagu gure genero-rolak barneratuta...

Iratxe: Bai, nik uste dut aldaketa hori egitea zaila egiten zaigula ze azkenean hori, gizarteak beti esan digu "horrela", baina bueno, behintzat kontzienteak izatea nolakoak diren gauzetan...

E3: Bai, nik gehienbat umeeekin lantzen dudana dela ez hainbeste berdintasuna, bai landu behar dela, baina gure buruarekiko errespetua eta maitasuna. Gure burua maite badugu, zailagoa da uztea norbaiti mina egitea, imposiblea ez, baina zailagoa da, nik uste eh.

Iratxe: Bai bai bai, eta hori ondo dago...

4. ELKARRIZKETA

(E4, 55 urte, Ormaiztegi, Odon de Apraiz)

Iratxe: Hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E4: Genero-rolak dira gizarteak urteetan zehar ezarri dituen estereotipo batzuk pertsonengan, eta horiek urteetan ikusi izan ditugunak. Genero-rolak ba suposatzen da direla antzinan espero zirenak emakumeak edo gizonak bete behar zituztenak; hau da, zu emakume edo gizona izateagatik bete behar zenituen ekintzak. Nolabait eskoletan eta ikastetxeetan ba aldarrikatzen dugun zerbait da eta aldatu nahian gabiltzan zerbait da.

Iratxe: Bai, denborarekin...

E4: Nik betidanik eta daramat urte lanean, hasiera hasieratik saiatzen nintzen bai neskei bai mutilei geletan proposatutako ekintzetan berdin parte-hartzen. Genero-rolak nik hori ulertzen dut, gizarteak antzinan ezarri zituen ekintzen banaketa, neska edo mutila izateagatik.

Iratxe: Bai, eta adibidez gizarteak du eragina horrengan, azkenean familiak ere bai, baina zuk uste duzu familiek batzuetan igual ez dituztela aldaketa horiek egiten gizarteak inposatutakoa normalizat hartzen dugulako?

E4: Nik uste dut modu eroso batean daudela beraiek, igual egiten dute errutina horretan edo urteetan ikusi dutelako horrela dela. Nik uste dut nolabait piztu behar diogula guk, irakasleak garenok, hau da, guk adibidez materialak eskatzen ditugunean eskolara ekartzeko esaten diegu "ekarri edalontziak koloretakoak, nahi dituzuen formakoak...", bakoitzak ekar dezake nahi duena. Hau da, ikusi behar dute aukera zabalagoak daudela, ez?

Iratxe: Bai, hori bai...

E4: Egia da, batzuetan ikusi dugu praka arrosa bat aldatu dugunean Haur Hezkuntzan txisatu direlako umeak ba mutil bati jartzen badizkiozu, azkar bueltatzen dizkizula, ba eramaten dute etxera eta berehala bueltatzen dira. Orduan gure gizartean uste dut gauzak ari direla aldatzen, badaude beste kulturako umeak, orain etorri direnak gure gizartera, eta horietan ere oraindik ikusten dira atzerapen gehiago dagoela gudan baino. Hori da nik ikusten dudana, atzerapen ez modu txarrean esanda, ba atzeratuta doazela, ez dela hainbeste pentsatzen horretaz, gehiago kostatzen zaie guri baino.

Iratxe: Bai, hori ere ikusi dut. Bale ba, zein iritzi duzu genero-rolari buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolen inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E4: Ba nire genero-rolen ikuspuntua aldatu zen hasiera hasieratik, nire amk aldarrikatu zuen gure independentzia; hau da, emakumeen independentzia, emakumeen libertatea, emakumeek aurre

egitea. Berak lanari utzi behar izan zion bere garaian ezkondu zelako. Ni nator familia batetik non amak lan egiten zuen eta matematikan oso ona zen, lantegi batean eramaten zituen kontuak eta utzi behar izan zion lanari eta orduan esan behar dizut, nik daramat ya urteetan etxetik hori bereganatuta edo barneratuta.

Iratxe: Bai, hori da, igual pixka bat zure esperientziak eta bizipenak izan dute eragina aldaketa horretan, ez?

E4: Bai, baina klaro, nire kasuan izan nuelako etxean emakume bat aldarrikatzen zuena gure independentzia, eta ekonomikoki gu kapazak ginela gure bizitzari aurre egiteko, pentsatu genezakela eta izan genezakela gure pentsamenduak, gure buruak tente mantendu behar genuela... Beti gelditzen zara jasotzen duzun alde positiboarekin. Ikusi behar da zein inguruan mugitzen garen, ikastetxeak zein motatako ikasleak dituen, zein familiak... eta horren arabera hori landu. Batzuetan elkarrizketetan ikusten da familia batzuen gizonak, gu emakumeak izateagatik tratua ez dela izaten izan beharko litzatekeen modukoa. Oraindik ikusten da, lana ugari dagoela, bai.

Iratxe: Eta adibidez horretan non ikusten duzu trataera desberdin hori? Zerbait nabaria egiten dute edo zerbait gertatzen da?

E4: Batzuetan esaten dizute "utzi bakean ze nik badakit zer egiten dudan", aholku bat ematen diozunean familia horri, batez ere gizonazkoei esaten diezunean zerbait "sisi, pero...". Edo baita ere entzun izan dugu ea datorren urtean egongo den irakaslea mutila izango den...

Iratxe: Ba bai, denetarik dago...

E4: Bai, hori da.

Iratxe: Bale ba, zuk nola lantzen dituzun genero-rolak klasean hurrekin? ba adibidez erabiltzen duzun hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketa...

E4: Nik egia esan ez diot garrantzirik ematen, hau da, normaltasunean lantzen dut, ez naiz zuzenean zuzentzen horretan, saiatzen naiz ipuinak kontatzen ditudanean ba berdintasunari buruz edo emakume edo gizonen arteko desberdintasun handiak agertzen ez direnak. Baina batzuetan ere esan diegu "ba gaur jarriko ditugu besteen amantalak" jolas moduan, hau da, ez da ezer gertatzen, ez da kolore bat, forma bat, pertsonak gara... Horregatik esan dizut normaltasunean saiatzen naizela, nik ematen diot eman behar diodan garrantzia, hau da, pertsonak garelako. Horri balioa emanda, listo.

Iratxe: Bai, hori da, gure egunerokotasunean gauza horiek normaltasunez joatea, ez?

E4: Bai, hori da. Gela barruan gaudenean, saiatzen gara horrelako egoeraren bat suertatzen bada, "si esa es chica y no puede", entzuten da 5 urteko geletan, eta horretan interbezioak ere behar dira, modu lasaiean, aukerak eskainiz.

Iratxe: Ba bai.

E4: Guk gure eskolan ikusten dugu patioan mutilek hartzen dutela eremu handiena eta neskak kanpoan gelditzen direla, baina orain aldatuz doa eta patioak aldatuko dira... poliki poliki. Baina egunerokotasunean eta gela barruan normaltasunean, azaldu pertsona garela eta hor desberdintasunak sortu gabe, eta sortzen badira, baretuz.

Iratxe: Ba bai, egia da... Ba bueno, zer egin daiteke genero-rolek neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E4: Ba orain arte esan dizudana.

Iratxe: Bai, zer edo zer gehiago komentatu nahi baduzu...

E4: Ez, azkenean da berdin, biolentzia ez sortzeko, ez da neska eta mutilak direlako, beti erakutsi behar zaiela pertsonen hitz egiten jakitea eta egoera zail baten aurrean hitza ematea eta modu egoki batean, bai neska bai mutila izanda, biei aukera hori eskaintzea, eta ez utzi inori gaizki erantzuten edo gaizki tratatzen. Azaldu nortzuk garen, pertsonak garela eta zaindu behar dugula gure burua eta besteen buruak ere bai, noski, modu lasai batean. Hasiera hasieratik erakutsi behar diegu beraien arteko harremanak sendotu behar direla eta lasai ibili behar direla modu egokian.

Iratxe: Bale, bai, hori ederto iruditzen zait, ideia ona...

E4: Bai, esan.

Iratxe: Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero-rolei dagokienez?

E4: Haur Hezkuntzako irakasle batek genero-rolei buruz jakin beharko luke lehenengo hori, berak zer eskaini nahi duen, zer esan eta azaldu nahi duen eta nola, eta hori argi daukanean, ba zabaldu gelan. Lehenengo berak jakin eta gero besteei inplikatu edo erakutsi, zuk ez badaukazu argi, edo zuk beste modu batera pentsatzen baduzu, gaizki. Behar duzuna da argitu erakutsi ahal izateko, eta argi baldin badaukazu, aurrera.

Iratxe: Bai, nik adibidez galdera honekin batera, lehen esan dizudana, azkenean hartu dudala pixka bat gai hau ni ere nire buruarekiko formazio hori egiten joateko eta irakaslea izateko ba pixka bat egitea hausnarketa hori.

E4: Bai, baina hausnarketa horretarako izan behar duzuela ya bizi izandako esperientziak eta bizipenak eta horien barruan seguro izan dituzula esperientzia batzuk zure inguruan, gizarte-mailan mugitu zaren tokietatik izan dituzula egoera batzuk itsusiak izan direnak genero-rolen aldetik.

Iratxe: Bai, bai eta egon dira.

E4: Ez da irakasle edo, da gizartea nire ustez, eta gizarte horren barruan badaude irakasleon bizipenak eta argi izan behar ditugu hainbat irizpide, izan behar ditugu hor barruan. Lehen esan dudana, horiek ezin ditugu transmititu, ze nahiz eta orain dela urte pila bat egoera hauek egon, gaur egun ere ematen dira.

Iratxe: Zalantzarik gabe.

E4: Ematen dira kasu konkretuetan, gutxiagoa lehen baino.

Iratxe: Bai da hori pixka bat, ni ere kontzienteagoa izateko, ze igual esaten dut ezetz, genero-rolak ez ditudala ikusten baina gure egunerokotasunean fijo zerbait ikusten dugula, inkontzienteki edo, baina nik uste denok edo guk esandako zerbait edo gure ingurukoek, ze azkenean oraindik dauzkagu genero-rolak bastante presente gure bizitzan.

E4: Bai bai. Zuk esan duzuna, ikasi behar dugu horiek baretzen eta nolabait jartzen bere lekuan, kokatzen bere lekuan.

Iratxe: Bai, guztiz ados. Ba adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eskolak badauka hezkidetza planik edo protokolorik hori lantzeko?

E4: Nik uste dut denok goazela ildo beretik, eta da hasieratik esan dizudana. Gauza da, gerta daitekeela igual hizkuntza, ze genero-rolak erabiltzen ditugunean, neska eta mutilak badaude igual irakasle berri edo gazteagoak direnak, erabil dezaketenak beste hizkuntza mota bat, garatuagoa dena eta askoz zuzenagoa. Nigatik hitz egingo dut ze agian nik batzuetan agian beraiengana zuzentzen naizenean, "benga, goazen, neska" edo "goazen mutila" ateratzen zait.

Iratxe: Bai, eta igual normalean ez gara ohartzen.

E4: Orduan bueno, ikasteko prest, baina batak ez du bestea kentzen Iratxe. Nik egin dut aurrerapauso handi bat baina oraindik atzetik datozenak, gazteagoak zaretenok, ba hobetu daitezke gauza horiek, perfilatu gehiago beste hizkuntza bat erabiliz. Baina ildo beretik joan gara denok eta elkar ikas dezakegu denok.

Iratxe: Bai, hori ederto. Eta adibidez eskolak badauka hezkidetza planik edo protokolorik horretarako?

E4: Nik uste dut protokolo bezala ez dagoela, baina hezkidetza lantzen da, normalean saiatzen gara urteko plangintzan eta horietan agertzen dira. Ez dakit orain dagoen, baina hezkidetza plana egin zen, eta berez ez dugu mahaiganeratzten urtero, baina bai emakumearen eguna, bai badaude urtean zehar hainbat data agertzen direnak eta horietan lan egiten duguna zuzenean.

Iratxe: Bale ba, perfekto. Eta zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E4: Nik uste dut lantzen dela hasiera hasieratik. Berriro esango dizut, ez dut uste izan behar dela gaur eta orain landu behar denik, ez dugu ahaztu behar eta gure buruak izan behar du argi eta nola dagoen, eta zein momentutan gauden. Eta ikusten badugu behar dela, indarra jarri horretan, hau da, kasu konkretuetan ikusten bada familia batzuekin ume horiekin talde batekin landu behar dela, ba indarra jarri behar da, baina bestela, bagaude garai batean non dakigunarekin eta dugunarekin gure inguruan gauzak joan beharko zirela normaltasun baten barruan.

Iratxe: Ba bai, ados... eta azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero-rolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza? Bueno, hau pixka bat dagoeneko erantzun duzu, baina hori, zer edo zer gehiago gehitu nahi baduzu...

E4: Aldaketa itzelak egon dira, ni, nigan. Nire familian, nire ama izan zen nire erreferente itzela, berak jarri zuen indarra gu ikasketa prozesuan sartzeko, izateko pertsonak, pertsona langileak, hau da, gure independentzia izateko. Hori izan zen gauza bat miresten zena baina momentu horretan ez genekien zenbaterainoko indarra izango zuen gerokoan. Jaso duguna pentsatzen dugu izan behar dela egokia atzetik datozenentzat eta transmisio hori jarraitu behar dugu egiten, ze ezin dugu utzi inor gutxiagotzen ondoan duena, ondoan duen pertsona, ez neska edo mutila izanda.

Iratxe: Orduan aldaketa badaude, ez?

E4: Bai, aldaketak egon dira, baina kostata. Eta esaten dizudana, familia batzuegan bai, gizarte-mailan joan da, oraindik gehiago egin behar dela? bai, aldaketak egon dira? bai. Baina nik uste dut dela laguntzea prozesu horretan eta indarra jartzea. Genero-rolak kontuan izan behar ditugu, ezin ditugu pertsonen mahaiganetik pasatzea, hau da, errespetua, elkarren arteko errespetua oso gauza inportantea da, bai gizartean, umeengan, helduengan... Eta guk genero-rola ere landu behar dugula, igual azaldu behar diegu, eta errespetatu beharko lukete gure pentsaera, batzuekin zaila eta besteekin ez hainbeste.

Iratxe: Bai, denetarik...

E4: Nik adibidez seme-alabei jarri nien panpin bat eta kotxe bat eta berak aukera izan zuenean, aukeratuko zuen baina nik eskaini nizkion bi horiek. Hartu zuen kotxea, baina nik aukera eman nion, hau da, pertsonen aukera eman behar zaie...

Iratxe: Bai, hori da, behintzat aukera ematea nahiz eta gero berak erabaki hori.

E4: Bai, hori da. Nik uste pertsonen aukerak eman zaizkiela, eta ez gara estereotipo batean sartu behar. Esan zu zara pertsona.

Iratxe: Hori da, pixka bat ateak zabaldu eta ez itxi.

E4: Bai, hori da.

5. ELKARRIZKETA

(E5, 57 urte, Gasteiz, Barrutia)

Iratxe: Hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E5: Ba adibidez, etxeko kontuak amarenak dira, edo aita da beti lanera doana eta ama da beti haurrak zaintzen dituen eta gelan ba mutilek futbolera jolasten dute eta neskek ez. Arrosa kolorea, nesken kontua da eta ez mutilena. Holako gauzak, ez?

Iratxe: Bai, eta adibidez zuk klasean ikusi dituzu genero-rol horiek haurren artean?

E5: Bai, bai, nire esperientzian ba adibidez arrosa kolorearena askotan gertatu zait, eta zer egiten dudan horren aurrean? Ba lasaitasunez azaltzen duzu ba kolore bat dela eta neska batzuei gustatzen zaiela baina mutil batzuei ere gustatu ahal zaiela eta erabili ahal dutela.

Iratxe: Bai, hori ikusi behar dute...

E5: Aurten 3 urteko umeekin nago eta hori ya ikusten ari naiz momentu honetan neskak direla zaintza rola hartzen dutenak. Baita psikomotrizitate gelara joaten garenean ere hasi dira neskak alde batean esertzen eta mutilak beste aldean. Bai nabaritzen dut neskak direla lasaiagoak orokorrean eta hartzen dituztela jolas lasaiagoak, plastilinarekin enrollatzen dira pila bat, marrazkiekin ere bai, eta mutilek kotxeak hartzen dituzte, garajea eta borobila den edozein objektu hartzen dute futboleko aritzeko eta ostikadak emateko, hori ikusi dut bai.

Iratxe: Bale, bai, perfekto... Ba bigarrenik, zein iritzi duzu genero-rolen buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolen inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E5: Ni, nire etxean bi gara, mutila eta ni, neba bat daukat eta bai txikitik eta gazteetan, ni izan naiz erosketak egitera joaten zena, ama ez bazen, nik egiten nuen, eta etxeko garbiketara ere, nik ere bai, nire nebak ez. Eta beti protestatu dut horrengatik. Ezkondu nintzenean ere, pentsatzen nuen niri zegokidala etxeko ardura guztia, nire senarrak lan egiten zituen ordu pila bat etxetik kanpo eta ni nintzen etxean denbora gehiena ematen zuena. Eta bueno, iritsi zen momentu bat oso gaizki nengoela eta gainera irakurri nuen liburu bat, oso interesgarria iruditu zitzaidana, "El complejo de Cenicienta". Liburu potolo bat da eta horrek ireki zizkidan begiak, eta hor hartu nuen kontzientzia.

Iratxe: Ba interesgarria izan daiteke hori irakurtzea.

E5: Egia da oso zaila gertatu zaidala baina hainbat aspektutan liberatu naiz. Nik ez dut pentsatzen etxeko gauza guztien ardura nirea dela, baizik eta partekatu behar dugula eta horretan gabiltza.

Iratxe: Pixka bat zu ere ohartu zarela egoera horretaz, ez?

E5: Bai, bai, bai. Eta bueno, ba hori, liburuak ireki zizkidan begiak eta senarrari esaten nion "que no, que yo aquí no soy tu madre, no es mi responsabilidad, es la tuya, hartu zuk". Baina batzuetan sufritzen duzu ba igual ohituta zaude beti erabakiak hartzen eta ohituta zaude zuk nahi duzuna egiten eta besteak egiten duenean gauza bat "que no te gusta" ba zaila da kudeatzea hori.

Iratxe: Eta bera ohartu zen edo zuk berarekin hitz egitean konturatu zen pixka bat egoera horretaz?

E5: Ba suposatzen dut izan genituen eztabaidak eta horren ondoren, konturatu zela, ba gero iritsi zen beste momentu bat non ya nahiko liberatuta geunden, nik jornada osoa egiten nuen, berak lana aldatu zuen eta ez zegoen hain lotuta...

Iratxe: Bai, igual pixka bat ohituta zegoen eta "zona de confort" horretan zegoen, ez?

E5: Bai, eta bueno, momentu honetan aste batean bere kontu doa eta hurrengoan nire kontuan, baina beti borroka horretan...

Iratxe: Ba izan da pixka bat gizarteak ezarritakoa ohikoa hartzen dugula...

E5: Bai, eta oso zaila da hortik ateratzea, ni irakasle moduan ere hainbatetan deskubritu dut nire buruan ba ume batek amantala zikintzean eta larritzen denean, ba orain kontzienteagoa naiz eta ez dut esaten lehen bezala "lasai, amak garbituko du" eta horrelako kontuekin askotan harritu naiz.

Iratxe: Behintzat gero kontzientea bazara...

E5: Bai, bai. Kontzienteagoa naiz, baina batzuetan ere... esan ondoren esaten dut "amak konponduko du..." eta gero esatea "edo aitatzok ere bai, eh". Momentu honetan dauzkadan ikasleek ez dakite ondo hitz egiten eta ez du ematen gauza horietan sartzeko baina bueno, kontzienteagoa naiz eta saiatzen naiz amak, aitak... bien kontua dela umeen zaintza.

Iratxe: Bai, hori ederto dago. Eta zuk nola lantzen dituzu genero-rolak klasean haurrekin? Ba adibidez zuk erabilitako hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketa...

E5: Ez dut ezer berezirik egiten, ez. Libre mugitzen dira eta ekintza komun bat egiten badugu edo talde txikitara ba ez ditut aukeratzen, gonbidatzen ditut, eta hurbildu ahala ba sortzen ditugu.

Iratxe: Bale... eta zer egin daiteke genero-rolek neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E5: Ba hitz egitea zerbait gertatzen denean, gatazkaren bat sortzen denean eta indarkeria erabili bada, baina hori berdin dio neska eta mutilen artekoa izatea edo. Baina hitz egitea eta agian nagusiagoak direnean ba egoeraren bat antzeztea, edo bideo bat ikustea eta horren inguruko hausnarketa bat egitea... bururatzen zait.

Iratxe: Bale, ondo. Eta Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero-rolari dagokienez?

E5: Ez dagoela genero bat bestearen gainera, berdintasunaren alde beti jokatu eta berdintasuna kontuan hartu beti, egoera guztietan. Ez daude batzuk besteen gainera, eskubide berdina ditugula eta hori bururatzen zait.

Iratxe: Ondo, ondo. Seigarrenik, adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eta eskolak badauka hezkidetza planik edo protokolorik hori lantzeko?

E5: Uste dut hezkidetza plana badagoela, baina nik ez dut ezagutzen. Lankideen artean, nire mailan gehienak emakumezkoak gara, iaz gizon bat zegoen, aurten beste bat baina aurten gainera gure arteko harremanak oso mugatuta daudenez, bakarrik bileretan elkartzen gara. Baina ez, lankideekin ez dago rol desberdinak emakumezko edo gizonzkoen artean, ez dut antzematen, behintzat.

Iratxe: Bale, ba.

E5: Bai iruditzen zait gure eskolan, zuzendaria emakumezkoa da eta ikasketa-burua eta idazkaria gizonzkoak, bai iruditzen zait agian, goiko karguetan gizonzko gehiago daudela emakumeak baino. Baina gero, zikloan gaudenon artean eta lan egin izan dut beste eskoletan, ez dut antzeman desberdintasunik.

Iratxe: Bale, perfektu. Eta zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E5: Ba agian formazioen bat beharko genuke, kontzienteagoak izateko. Adibidez ni gogoritzen naiz duela urte batzuk egon nintzen eskola batean antzerki tailerra egiten zen, eta ni nintzen horren arduraduna eta lantzen zen sagutxo kaskarinarena ipuina.

Iratxe: Ba ez dakit zein den ipuin hori...

E5: Ba da sagutxo neska bat eta egun batean aurkitzen du txanpon bat lurra garbitzen ari zenean eta pentsatzen hasten da zer erosi diru horrekin, eta erosten du lazito bat bere buztanean jartzeko. Orduan esertzen da etxeko atarian eta egoten da zain bikotea aurkitzeko, eta hurbiltzen zaizkio animalia batzuk eta azkenean katu batekin ezkontzen da eta etxera joatean ba katuak sagutxo kaskarina jaten du. Orduan ba ezkontza eta guzti horretaz ohartu ginen eta pentsatu genuen agian aldatu behar zela ipuin hori. Eta hausnarketa hori egin genuen.

Iratxe: Bale, pixka bat tradizioz jasan ditugun ipuin horiek moldatzea...

E5: Bueno, moldatzea eta ordezkatzea. Baina moldatzea ere batzuetan azterketa bat egin beharko zen, berdintasunean suposatzen dut egongo dela jendea formazio hori egongo dena eta emateko prest egongo dena, eta hori, ba hausnarketa bat horretaz... edo moldatu behar dugu edo kendu, baina bai, formazioa interesgarria izango litzateke.

Iratxe: Ba bai, ondo legoke... eta azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak generorolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E5: Nik uste dut baietz. Nik adibidez ama moduan semea eta alaba dut, eta bueno, saiatu gara ardura berberak dituztela irakasten, eta hezi ditugu horretan. Ba hori, eskubide berberak eta beraien artean adostu behar dutela bakoitzak zer egin... Aurreko belaunaldiekin konparatuta, aurrerapenak bai egon dira, nire amak gaur egun 87 urte dauzka eta berak kontatzen dit, bere aita hil zen berak 40 urte

zauzkala, eta herentzia hartu ahal izateko, 1976an, nire amak behar zuen nire aitaren sinadura, harrigarria da... hau da, bere senarrarena.

Iratxe: Jope, bai... oso harrigarria.

E5: Ba bueno, gauza horietan bai aldatu dira eta nire amak beti eman didan mezua izan da "hija, tú estudia, prepárate y no seas dependiente de tu marido, busca la independencia económica, busca tú y realízate tú". Gogoratzen ditudanean amaren esanak, horiek dira. Nik adibidez nire senarrarekin antolatu dugu denbora libre izateko eta orekatua izateko.

Iratxe: Ba hobe horretaz ohartzea eta hitz egitea bai...

E5: Bai.

6. ELKARRIZKETA

(E6, 34 urte, Dima, Odon de Apraiz)

Iratxe: Hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E6: Bueno ba niretzat genero-rolak dira sexuaren arabera bakoitzari ematea rol bat. Askotan esaten da euskera ez dela sexista baina nik uste dut hizkuntza oro erabiltzen dugun eran erabilia, izan daitekeela sexista. Ba adibidez ume bat koletarekin datorrenean eta esaten dugu "ze koleta polita egin dizun amatxok" eta zergatik ez aitaxok? Uste dut nahiz eta femenino eta maskulino ez nahastu euskeran, hori oso era generikoan egiten da, baina ekintza bakoitzari ipintzen diogu genero hori. Edo botoi bat askatzen zenean amantalatik "bueno, hartu pittin, amamak jauziko du". Ba horretan generoa eta bakoitzari lotutako rolak erabiltzen genituen.

Iratxe: Eta adibidez klasean ikusi duzu umeen artean egon diren genero-rol horiek?

E6: Ba da hirugarren ikasturtea talde berdinarekin nagoena Iratxe, eta nik nire egitekoan, bueno ardatz moduan Haur Hezkuntzan erabiltzen dudana da umeen ongizatea, umeak pozik etortzea eskolara, euskera, ze familia askotan euskararik ez da erabiltzen eta ere hezkuntza feminista. Saiatzen naiz umeak heztea modu berdinean, eta bai 3 urteko gelan ikusten nituen rol horiek, baina orain 5 urteko gelan ikusten doaz askoz orekatuagoa. Baina gero jolasetan, bai da egia patiora goazenean neskak jolas batzuetan gehiago ibiltzen direla eta mutilak beste era batera.

Iratxe: Bai, eta horien artean, ez dakit, adibidez esatea "zu neska zarenez, ezin duzu hau egin", horrelakorik?

E6: Ez, baina urte honetan hori asko landu dugulako, eta ipuinetan ere saiatzen naiz gai hori lantzen eta txertatzen, ateratzen diren gaietan ere bai. Atzo adibidez ere atera genuen klasean gai bat, Espainian mutil bat soinekoarekin joatearren izan dela burlatua... gai hori atera genuen korroan eta

egon ginen hitz egiten, ba badaudela mutil batzuei ba gustatzen zaizkiela soinekoak eta neska batzuk ez direla margotzen eta erreferente desberdinen inguruan bai hitz egiten dugula eta umeek oso ondo onartzen dute hori.

Iratxe: Jope, ba bai, oso ona gauza horretaz ere hitz egitea.

E6: Bai.

Iratxe: Bale, ba bigarrenik, zein iritzi duzu genero-roleri buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolen inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E6: Nik adibidez nire amamak asko maite nuen, baina nire amama zen jarrera matxistak edukitzen zituena eta nik uste dut urteak aurrera joan diren heinean, gure gizartea ere aldaketa bat ematen doala. Orduan uste dut, gero eta kontzienteagoak garela, nahiz eta betidanik izan dugun hori, gehiago zaintzen dugu gure hitz egiteko era eta jarrera. Bai, nire ustez bai aldatu da. Bai saiatzen gara umeak hezten hezkidetzan oinarrituta eta era parekide batean, berdin da neska edo mutil izatea.

Iratxe: Ba hobe horrela izatea bai...

E6: Nik adibidez momentu honetan daukat ume bat non oraindik definitu gabe dagoena, aluduna da baina daude egun batzuk esaten duela "ni mutila naiz" eta beste batzuetan "ni handia naizenean ama bezala hilerokoa izango dut". Orduan hor niretzat onartua da, bera da bera dana eta gustora sentitzea da garrantzitsuena, ez etiketa hori, neska edo mutila.

Iratxe: Eta formakuntza jaso duzu horretarako?

E6: Formakuntza orain dela 5 urte edo genero-rolen inguruko ikastaro batzuk bai egin nituela eta gero ipuinetan sexismoa detektatzeko ere bai eginda daukat, eta gai horretan sartuta ibiltzen naiz.

Iratxe: Ah bale, perfektu orduan. Eta nola lantzen dituzu genero-rolak klasean haurrekin? ba erabiltzen duzun hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketa...

E6: Ba nik lantzen dut era natural batean, ez da gaur nator eskolara eta "benga, landu behar dut hau", ez, egunerokotasunean eta era natural batean, eta sortzen denean komentarioa bat sexista dena edo genero roletan oso markatuta dagoena ba saiatzen naiz apurtxo bat bideratzen, umeak ikusteko zer den atera dena. Ezkutatu beharrean, saiatzen naiz klasera plazaratzen eta horretaz debatitzen. Gero, espazio eta denbora... ba azkenean gelako aniztasuna kontuan hartuta.

Iratxe: Bale ba, perfektu... eta zer egin daiteke genero-rolek neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E6: Ba niretzat klabea da txikitatik hezkidetzan hezteak eta txikitatik erakustea gure ezberdintasunean denok dauzkagula eskubide berdinak eta jokatzeko aukera. Baina uste dut txikitatik joan behar garela gauzak sartzen eta material asko dago, eta beste gai batzuetan interesatzen garen moduan, ba gai hau ere gure ardatzetan hartzea eta lantzea.

Iratxe: Bai, azkenean txikitatik ez badugu lantzen...

E6: Hori da, bai.

Iratxe: Ba Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero-rolari dagokienez?

E6: Denak berdin errespetatzea eta desberdintasunik ez markatzea neska eta mutilen artean, eta erakustea denok dauzkagula eskubide berdinak. Begiratzuz ba beren nortasuna, "hauek dira mugituak, hauek lasaiagoak..." eta taldekatzea horren arabera.

Iratxe: Bai, ondo. Nik adibidez honen harira, erabaki nuen gai hau hartzea gero ni irakaslea izaterako orduan ba genero-rol horiek ez transmititzeko ikasleei. Niretzat GRAL hau izango da formakuntza bezalako.

E6: Ba oso interesantea Iratxe. Nik pentsatu nuen "ze ondo unibertsitateko ikasle batek gai honi eustea". Eta adibidez nire gelan suertatu zenean komentatu dizudan kasua, aludun ume honena, ba oraindik ez dagoela hor kokatu, ziren komentario asko "ala, ze potxola" eta jope, hori ez esan... askotan pentsatzen dugu euskerak salbatzen gaituela eta ez dagoenez maskulino eta femenino... baina gure hitz egiterako eran eta adjetiboetan askotan sartzen ditugu guk rol horiek, eta genero marka horiek. Eta horrek umeengan mina eragin dezake.

Iratxe: Ba, bai... nahiz eta batzuetan ez konturatu, bai.

E6: Bai, bai.

Iratxe: Eta adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eta eskolak badauka hezkidetza planik edo protokolorik hori lantzeko?

E6: Nik adibidez iaz eduki nuen pareko bat, iaz jubilatuta zena, baina gai honetan oso interesatuta zegoena, ezin dut esan adinaren arabera dela, ze nire ustez badaude gazte batzuk "que pasan del rollo" eta beste batzuk adinekoak oso motibatuta daudela. Nire parekoa hori, martxoan jubilatuta zen baina da tope feminista eta orduan berak rol horiek egiten zituen era naturalean eta markatu gabe. Orduan adinean ez nuen zehaztuko, uste dut pertsonena dela eta zuk ea nola bizi izan duzun hori, bizipenak, edo bizitza filosofia ere...

Iratxe: Bai, hori egia da, beti denetarik aurkitu dezakegu...

E6: Hezkidetza planik uste dut ez dagoela, edo nik behintzat ez dakit.

Iratxe: Bale, lasai.

E6: Odon de Apraizek badu patio oso zabal bat, eta patioaren erdian daude futboleko gune bat, saskibaloiarako. Guraso elkartetik bai daude patioa eraldatzeko nahian ere bai, genero aldetik eta ikuspuntu hori kontuan hartuta, orduan bai dago eraldaketa prozesu bat ikastolan patioari begira, genero-rol horiek banatzeko eta sexuen arteko desberdintasun horiek ez izateko markatuta.

Iratxe: Nik adibidez jolastokiei begira, marko teorikoa egiterakoan, irakurri nuen artikulu bat eta hori, jartzen zuen beti patioaren eremu handiena eta mutilek hartzen zutela, eta neskek horien inguruan.

E6: Eta hori da beti eskola guztietako erronka eta bronka Iratxe, ze batzuk gara ez baloien aurkakoak baina baloi bat ateratzeak asko markatzen du, orduan da hori, ba batzuk oreka mantendu nahian, igual baloia ez kendu baina igual batzuk markatzea baloirik gabeko egunak eta horrelako beste jolas batzuetara jolasteko aukera izateko eta patioa izateko denontzako espazio seguru bat.

Iratxe: Ba bai... eta zure ustez, nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E6: Ba nik uste dut denok ematea igual garrantzia honeri. Nik egingo nuena da duen garrantzia ematea, baina ematea umea eskolara sartzen den momentutik eta gure egitekoetan ba ardatz bat izatea eta horrerik eustea, umeak horrela hezteko. Eta gero denbora pasa ahala, sor daitezkeen arazoak ekiditeko. Eta uste dut ematen diogun garrantzia baino oraindik gehiago eman beharko geniola.

Iratxe: Ba bai, inoiz ez da nahikoa... eta zuk garrantzi hori nork gutxiesten duela uste duzu? Gizarteak igual?

E6: Gizarteak edo guk geuk ere bai, niretzat oinarrizkoak diren gauza asko ez ditugu lantzen eta horiek landu gabe besteak badoaz... eta bueno, gizartean ere bai, oso markatuta daude rolak, orduan askotan eskola da "oasi" bat horretan, eta saiatzen gara hori landatzen eta hazten diren loreak hortik, baina batzuetan kalera doaz edo familietara doaz eta gelan entzundako guztia badoa.

Iratxe: Azkenengo hori egia da, bai...

E6: Nik horregatik Iratxe, familia-bileretan gai hau ere ateratzen dut askotan, komentatu ba guk zelan hezten ditugun umeak eskolan, zertan sinesten dugun, apurtxo bat eurek ere bide berdinetik jarraitzeko, ze azkenean eskola eta familia elkarrekin egin behar dute umearen ongizaterako. Eta hori inportantea da, etxeetara eta familietara ere mezu hori zabaltzea.

Iratxe: Guztiz ados, bai. Eta azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero-rolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E6: Uste dut baietz, esperantza eduki behar dugu gainera, da gai bat arduratzen duena, eta telebista piztean eta teleberria ikusita eta entzutea, nahiko penagarria dela... orduan uste dut datozen belaunaldi berriak horretan kontzienteagoak izan behar direla eta ekin lan horrerik, ez bakarrik entzun eta sinistu horretan, praktikan jarri egunerokotasunean gelan eta umei bide horretan hezteak.

Iratxe: Ba bai, espero dugu nire belaunaldia horrela jarraitzea...

E6: Bai.

7. ELKARRIZKETA

(E7, 28 urte, Algorta, Arantzabela)

Iratxe: Bale, ba hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E7: Ba nik ulertzen dut genero-rol bezala igual sexuari atxikitzen dizkiogun portaerak, baina sozialak, sozialki ulertzen dena, bakoitzari zer suposatzen den dagokiola. Eta hurrekin, ba tipikoa, beti gertatzen da jolasekin, ba "hau da nesken jolasa" edo koloreekin, hau da "arrosa da nesken kolorea". Horrelako adibideak jarraitzen dute agertzen gaur egun ere. Aurten nago 3 urteko gelan, eta egon naizenean gehiago 5 urteko geletan eta, hor igual agertzen dira komentario gehiago.

Iratxe: Bai, eta zuk ikusi duzu beraien artean izandako komentario horiek?

E7: Aurten igual 3 urteko gelan nagoenez, ez. Oraintxe bertan ez zait bururatzen baina egon nintzenean 5 urteko gela batean bai, agertuko ziren horrelakoak.

Iratxe: Bale, bale. Bigarrenik, zein iritzi duzu genero-rolari buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolen inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E7: Ba ez nago ados zentzu horretan, ez dago gauza bat mutilena edo gauza bat neskena, azkenean sozialki eraikitzen dugun zer edo zer dela baina zentzu askotan ere apurtzen jakin behar dugula horrekin. Nik uste dut pentsatzen dugula kontzienteak garela eta gauza asko ba agian gazteak garenok modu zabalago batean hezi gaituztela eta nik uste dut nahigabe egunerokotasunean eta hazten goazen heinean bagoazela ere konturatzen gauzetaz eta pixkanaka-pixkanaka aldatzen ere. Igual txikitzen tontakeria da baina ile luzea edo motza, ba beti motza mutilena eta luzea neskena, baina gero badakigu ezetz.

Iratxe: Bai, hori da, pixkanaka-pixkanaka... Bale, eta zuk nola lantzen dituzu genero-rolak klasean hurrekin? adibidez erabiltzen duzun hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketa...

E7: Ba bueno taldekatzeak beti mixto saiatzen naiz egiten eta nik uste dut nahiko zaintzen dugun gauza dela. Igual saiatzen naiz lantzen ditugunean gauzak, ba adibidez, lanbideak, ba jarri beharrean lanbide bakoitzeko ba "medikua gizona eta emakumea irakaslea", ba bi sexuak jartzen ditut, ez bakarria. Ze batzuetan ikusten da ba nahigabeen ere erabiltzen dugun materialen gaur egun ere horrelako bereizketak egiten direla. Gero ere saiatzen naiz ba egunerokotasunean igual beraiekin hitz egitea, beraiek ere kontura daitezen... igual praktika jarri gure egunerokotasunean ere.

Iratxe: Ba bai... eta zer egin daiteke genero-rolak neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E7: Ba nik uste dut oinarrizkoena dela heziketa, baina gizarteak ere horretan du eragina, ba telebistak, ikusten dituzten marrazki bizidunek, nahi gabe familiek jartzen dizkieten arropak... azkenean nahi gabe egiten ditugun gauza asko dira. Ba horrelako gauzak, eta igual apurtzea ere pixka bat horrekin. Gu kontzientziak izanda ere, nahi gabe nik ere batzuetan egiten ditudan gauzak... baina gure kontzientziatik hasi hezten umeak.

Iratxe: Bai, azkenean hori transmititzeko guk ere formakuntza bat izan behar dugu.

E7: Hori da. Pixka bat guk geuk ere hausnarketa egitea, ze uste dugu "ni ya aurreratu naiz mentalitateari dagokionez" baina gero guk ere horrelako gauzak egiten ditugu.

Iratxe: Ba bai... eta Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero-rolari dagokienez?

E7: Ba igual tratatzeko era, umeekin lantzerako momentuan ba zelan tratatu, ze adibidez koloreena, da gauza bat dutela barneratuta eta badirudi tontakeri bat baina beraiengan ere kontzientzia piztu, koloreak ez direla neskenak edo mutilenak. Igual gaiaren inguruan prestakuntza edukitzea ere iruditzen zait garrantzitsua ze betikoa, uste duzu badakizula dena baina prestakuntza falta zaigu zentzu horretan. Igual haur txikienekin gure errua da ere gauza asko horrela erakusten dizkiegulako, eta horiek badoaz barneratzen ideia batzuk.

Iratxe: Nik adibidez erabaki nuen gai hau hartzea pixka bat formakuntzat hartzeko, ze bai esaten duzu "bai, nik dakit hau eta bestea".

E7: Ba bai...

Iratxe: Eta lan honen bidez ikasten ari naiz pila bat, eta elkarrizketekin ere bai, igual pentsatzen nuen zerbait ez zegoela txarto baina hitz egin eta gero, ohartzen naiz baietz.

E7: Bai, hori da, igual gauzak alde batera uzten ditugu eta gero konturatzen zara ez direla normalak.

Iratxe: Bai, eta horregatik, gero pixka bat nire etorkizunean ni irakaslea naizenean nahiago nuke ba gaia pixka bat finkatuta izatea.

E7: Ba ondo egiten duzu Iratxe.

Iratxe: Bai... eta adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurtean? Eta eskolak badauka hezkidetzak planik edo protokolorik hori lantzeko?

E7: Ba pentsatzen... nik esango nuke ezetz, baina egia da, Haur Hezkuntzan gehienak garestuak emakumeak, badoaz gizonak gero eta gehiago izaten, baina errealitatea hori da. Eta batzuetan komentatu izan dugunean, egia da errespetu gehiago diotela gizonezkoiei batzuetan emakumezkoiei baino. Hor igual bai batzuetan, ez beti, nabaritzen dela zentzu horretan. Baina hori ikasleekin da. Gero nik uste dut gure artean ba horrela nik ez dut ikusi desberdintasunik.

Iratxe: Bale, ados.

E7: Eta bestetik, hezkidetzeta plana badute eta ere orain hasi garela batzordeak eratzen, badago hezkidetzaren batzordea. Egon badago, baina ez garez hasi, ez dakit esaten zein den proiektua.

Iratxe: Bale, lasai. Eta zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E7: Inoiz ez da nahikoa, eta gainera ikusita ume askok familietan dituzten ereduak eta ba beti landu daiteke gehiago. Baina askotan zentratzen gara hainbeste zentratu behar ez garen gauzetan... eta gauza hauek uzten ditugu alde batera. Landu beharko lirateke gehiago, bai. Aldatzeko... ba honetan ere igual familien parte-hartzea eta kontzientaren pizte horretan indar handiagoa egingo nuke.

Iratxe: Bale, pixka bat familiaren parte-hartzea bilatu, ez?

E7: Bai, igual gehiago eta guk formakuntza bat jasotzen badugu, beraiek ere aukera izatea. Igual gaur egungo egoerarik ezinezkoa, baina formakuntza bat jasotzean, beraiek ere gonbidatzea. Beraengan ere kontzientzia hori piztea.

Iratxe: Perfekto, interesgarria. Eta azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero-rolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E7: Nik uste dut aurrerapausoa egon dela, baina oraindik falta zaigula, azkenean aurreiritzi nahikotxo izaten jarraitzen dugu, telebistaren errua, inguruaren errua... Igual kontzienteak gara, baina azkenean nahi gabe kontsumitzen dugun hori barneratzen dugu ere bai. Orduan nik uste aldatu dugula, baina oraindik falta zaigula. Oraindik dauzkagu oso markatuta gauza batzuk.

Iratxe: Ba bai, pixkanaka-pixkanaka...

8. ELKARRIZKETA

(E8, 40 urte, Bakio, Arantzabela)

Iratxe: Hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E8: Eskola barruetan jarraitzen dut ikusten adibidez ba larrosa asuntoarekin jasan daitezkeen komentarioak. Ematen ari dira aldaketa pixka bat, ba badaude ume batzuek arrosa eramatearenari aurre egiten diotenak, baina orokorrean, arrosa daramaten umeak irainak jasotzeko arriskua du.

Iratxe: Ba bai... Zuk hori orduan ikusi duzu, ezta?

E8: Bai, bai. Eta adibidez entzuten duzu "la mesa de los chicos" eta "la mesa de las chicas". Ta erakusten diet hemen klasea garela. Ingelesa irakaslea bezala, ba bideo asko jartzen dizkiet, eta kontuz izan behar dugu zer erakusten edo transmititzen diegun. Hala ere, uste dut badagoela sentsibilitate bat eta badoala hori lantzen.

Iratxe: Batzuetan inkontzienteki izanda ere...

E8: Bai, baina nik adibidez eskatu diet irakasleari arrosarena lantzea, eta garatu nuen ekintza bat, eta hilabete bakoitzak kolore bat izatea eta aztertzea.

Iratxe: Oso ona. Bale ba ze iritzi duzu genero-rolari buruz? Zure bizitzan zehar genero-rolari inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E8: Ba txikitan ez dakit oso ondo genero-rolak nituen ala ez, baina nik futboleko jokatzen nuen patioan, ze ikastolan ez ninduten uzten jolasten, ze esaten zuten mutilena zela. Baina jarraitu nuen jolasten. Baina bai, aldaketa kostata baina bai lortu nuen, ez zegoelako ondo ikusita.

Iratxe: Ya, bai... pixka bat esperientziaz orduan?

E8: Bai. Gainera gizartea ere aldatzen doa...

Iratxe: Ba bai. Eta zuk adibidez nola lantzen dituzu genero-rolak klasean haurrekin? Ba adibidez hizkuntzarekin, materialarekin...

E8: Klaro, euskararekin oso ondo dago, genero hori ez delako desberdintzen, baina ingelesez bai "she" eta "he" lantzean ba transmititzen diezu "zu mutila zara eta zu neska". Baina bestela ipuinak, abestiak... lantzen ditugu, ze ez dute asko hitz egiten euskaraz Haur Hezkuntzan. Eredu zabalagoak eraskutea izaten da ere nire esku hartze zuzena geletan.

Iratxe: Eta adibidez taldekatzerako orduan, zer egiten duzu, mixto?

E8: Nik normalean libre uzten ditut. Baina ikusten dudanean genero landu daitekeen gauzaren bat dagoela ba lantzen dut, momentuan aldaketak egin, galdera bat planteatu, bideoa baten mezua helarazi...

Iratxe: Ba hori oso ondo, momentuan esatea. Bale, ba zer egin daiteke genero-rolak neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E8: Joe, ba nik ere planteatzen dut galdera hori... Ba egia esan ez dakit, nik uste dut eredu gehiago behar direla eta ez izatea neska arrosa figura eta mutila urdin figura hori. Eredu gehiago, ez bakarrik telebistan eta horrela, baizik eta klasean ere bai. Hau da, gertutasunetik ere bai. Ze adibidez, gurasoak elkartzen gara eta emakumeak alde batetik eta gizonak bestetik. Zer erakusten ari gara horrekin umeei?

Iratxe: Bai, batzuetan ez gara ohartzen...

E8: Eta nire kasuan adibidez, Haur Hezkuntzan emakumeak gara guztiak eta hori ere umeentzat harrigarria izan daiteke.

Iratxe: Bai, hori bai...

E8: Eta guk erabiltzen dugun hizkuntzan eta materialetan ere ba hori zaintzea. Baina hori, berez ez dakit, baina bueno, beste jolas mota batzuk... eta uste dut irakasleok ere parte hartu behar dugula jolasetan. Ez umeekin jolastu, baizik eta guk gure artean jolastu.

Iratxe: Beraiek zuek ikusteko, ez?

E8: Bai, hori da.

Iratxe: Bale, eta Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero-rolen dagokienez?

E8: Ba eredu izatea, nik beti esaten dut niretzat garrantzitsuagoa dela eredu hitzak baino. Orduan lehenengo eredu, zer egiten duen, nola egiten duen... Gero umeei berdintasun osoa landu, esandako eredu eta rol desberdinak erakutsi... Batzuetan agian garrantzitsuagoa da ekintzetan animalia bat jartzea, neutroagoa delako. Orduan horrek pila bat laguntzen du. Ipuinak ere bai... eta hori.

Iratxe: Bai, hobe da zerbait neutroago erabiltzea.

E8: Bai, eta batzuetan gertatzen da hartzen dugula ipuin bat oso ondo dagoela, baina baduela komentario edo esaldiren bat... ba bueno, hori hartu eta berridatzi.

Iratxe: Bai, hori lagungarria da, behintzat ohartzeko, ez?

E8: Ba bai. Hala ere, badaude inkontzienteki eskapatzen diren esaldiak baina bueno... ez dugu egun batetik batera guztiz aldatuko.

Iratxe: Bai, baina behintzat pixkanaka-pixkanaka...

E8: Bai.

Iratxe: Bale, eta adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eta eskolak badauka hezkidetzaren planik edo protokolorik hori lantzeko?

E8: Hezkidetzaren plana badago, eta hezkidetzaren taldea ere bai. Baina denbora asko egon naiz nire gauzak irakurtzen, eta ezin izan dut irakurri. Baina bai egiten dituztela horrelako ekimenak eta adibidez orain azaroak 25ean egin zuten kartela zen "Minik ez". Eta orduan hori asko gustatu zitzaidan, iruditu zitzaidalako potenteagoa delako biolentzia ez eragiteko, neutroagoa agertzen delako.

Iratxe: Ba bai, gainera hobeto uler dezakete...

E8: Ez da hainbeste zer genero duen, baizik eta indartu behar dugu horren balioak, talentuetan...

Iratxe: Bai, ez bakarrik pentsatzea emakumea edo gizona den..

E8: Hori da, pertsonak gaitasunak eta listak. Umeei gehiago pertsonak landu eta gure artean ikustarazi neutraltasuna.

Iratxe: Eta horrekin batera, adin desberdinetako lankideekin genero-rol horien nabaritu dituzu?

E8: Baina ez dakit, igual batzuetan hitz egiterakoan erabiltzen dituzten esakerak ba desberdinak dira... eta bai ikusten ditut, ze hain barneratuta daukaten, nahiz eta hezkidetzaren landu nahi, nagusioi guri baino gehiagotan eskapatzen zaizkie ba komentario batzuk umeen aurrean... Baina detailtxoak.

Iratxe: Bai bai, baina batzuetan hori, nahigabe... Eta zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E8: Ba ez dakit zenbat lantzen den, baina zerbait propio bezala izaten da.

Iratxe: Bai, naturaltasunez, ez?

E8: Hori da bai, gure egunerokotasunean. Baina adibidez abesti bat gustatzen zait umeei jartzeko baina bideoa ez, estereotipatua dagoelako. Eta ikusi behar dut zer egin, bideoa jarri eta komentarioren bat egin edo beste bat topatu edo guk geuk egin bideoa... horretan nabil.

Iratxe: Ya... baina bueno, hobe da behintzat horretaz ohartzea eta hausnartzea.

E8: Bai.

Iratxe: Bale, ba azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero rolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E8: Ba bueno, niri harritzen nau ni baino gazteagoak diren pertsonak nola transmititzen dituzten rol txar horiek. Baina hori, igual ikusten eta entzuten dituzu batzuetan komentario batzuk... ez dakit heldutasuna eta kritikotasunak bat egiten duten, baina hori.

Iratxe: Ba ez dakit, baina bai, izan daiteke.

9. ELKARRIZKETA

(E9, 39 urte, Gasteiz, Arantzabela)

Iratxe: Hasteko, zer dira genero-rolak zure ustez? Bururatzen zaizu klasean hurrekin agertutako adibideren bat?

E9: Bueno, nik orain ez daukat klaserik, ni koordinatzailea naiz eta joaten naiz laguntzera. Baina pentsatzen dut genero dela bai gizontasunari edo emakumeari ematen zaizkion ba rolak. Umeei nola jokatzeko duten... hori da. Eta gizarte bakoitzak bere rolak ditu, ez da berdina hemen edo Txinan.

Iratxe: Bai bai, denetarik egongo da...

E9: Bai, esaten da beste leku batzuk matxistagoak direla, beste batzuk gutxiago... Eta batez ere nabaritzen da nola tratatzen dituzten beren seme-alabak.

Iratxe: Eta adibidez zuk ikusi duzu klasean hurren artean komentarioren bat edo?

E9: Bost urtekoekin nengoenean, ba batzuetan jolasei buruz, ba entzutea "hori neskena da" edo "mutilena da eta ezin duzu jolastu"...

Iratxe: Bai, hori entzunda daukat nik ere bai...

E9: Baina hori, adibidez aurten kendu dugu baloia patioetik ze horrek bultzatzen zuen futbolera aritzera eta batez ere mutilak ziren.

Iratxe: Ba igual hobe, ze agian mutilek har dezakete patioaren espazio handiena, edo ez dakit.

E9: Bai, hori da.

Iratxe: Bale, eta zuk zein iritzi duzu genero-roleri buruz? Zure bizitzan zehar genero rolen inguruko ikuspuntua aldatu egin da? Zergatik?

E9: Ba hitz egin duguna pixka bat, lehen zirudien bazeudela gauza batzuk batzuentzat, eta besteak besteentzat, eta bueno, orain gu saiatzen gara, bai ni nire bizitzan ba gustatzen edo nahi dudana egiten. Eta eskolan ere bai, hezitzen denak berdintasunean. Baina aldaketa... igual adiago egotea eta azaltzea hobeto.

Iratxe: Bai, ze askotan inkontzienteki ere transmititzen ditugu.

E9: Hori da, hori da. Pixkanaka saiatzen gara konpontzen.

Iratxe: Bale, ondo. Eta zuk klasean nola lantzen dituzu genero rolak hurrekin? Adibidez erabiltzen duzun hizkuntza, materialak, taldekatzeak, espazio eta denbora banaketa...

E9: Ba denak dena berdin. Gainera nik uste ere euskerak daukala aberastasun hori, ez duzu klasifikatzen hainbeste erdera bezala. Orduan niretzat naturalagoa da.

Iratxe: Bai, hori bai...

E9: Eta adibidez praktikan egon zen mutil batek landu nahi izan zuen liburu bat "Nerea". Eta oso erakargarria izan zen batez ere genero-identitatea ere lantzeko. Eta gainera umeek oso azkar ulertu zuten. Eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Gu saiatzen gara berdintasunean hezitzen, baina genero kontua ez da horretaz hitz egiten, neska eta mutila bakarrik.

Iratxe: Bai, baina bueno, behintzat ipuinekin pixkanaka pixkanaka ohartzen joaten badira...

E9: Bai, bai.

Iratxe: Eta zer egin daiteke genero-rolak neska eta mutilen arteko desoreka eta biolentzia ez eragiteko?

E9: Jo ba orain izan dela azaroaren 25a, guk Haur Hezkuntzan landu dugu "minik ez", orokorrean. Gizarte batean bizi gara, nahiz eta zuri ere zure familiak balio batzuk transmititu. Oso lotsagarria da oraindik ere horrelako kasuak egotea indarkeriarekin lotuta.

Iratxe: Ba bai.

E9: Baina hori, uste dut saiatzen garela berdintasunean hezitzen.

Iratxe: Ondo orduan. Eta zure ustez Haur Hezkuntzako irakasle batek zer izan behar du kontuan genero roleri dagokienez?

E9: Ba berdintasuna, gizarteak zer egiten duen ikusi hori ekiditzeko. Berdinak dira, eta haiek beren artean berdintasunean tratatzen dira, ez dituzte oraindik Haur Hezkuntzan rol horiek.

Iratxe: Badaude kasuak baina bai... gizartean barneratutakoak.

E9: Bai...

Iratxe: Eta adin desberdinetako lankideekin genero-rolak nabariak dira? Zertan? Zer egiten duzu horren aurrean? Eta eskolak badauka hezkidetzaren planik edo protokolorik hori lantzeko?

E9: Bai, nik benetan esaten dizut, baina hezkuntzan eta batez ere Haur Hezkuntzan adin desberdinetako irakasleak daude, eta egoten bada dira batez ere nahigabe egiten ditugun komentarioak. Iguar urte asko dira... baina batzuetan ere gazteei ateratzen zaizkizue.

Iratxe: Bai bai, hori fijo.

E9: Eta eskolan bai badago hezkidetzeta plana, ari gara orain egiten. Aurten sartuko gara patioa aldatzera, aukera gehiago eskaintzeko. Baina poliki poliki, nahiz eta aurrerapen txikiak eman, urtero zerbait egiten da.

Iratxe: Ba hori garrantzitsua da ere bai. Eta zure ustez nahikoa lantzen da gai hau Haur Hezkuntzan? Zer aldatuko zenuke zuk?

E9: Dena dago batera, orduan denbora osoan ari gara hori garatzen.

Iratxe: Bai, naturaltasunez.

E9: Hori da. Modu globalean.

Iratxe: Bale, ederto. Eta azkenik, zer uste duzu egiten duela zure belaunaldiak genero rolen gaiarekin? Aurreko belaunaldiekin konparatuta aurrerapausorik egon da? Hurrengo belaunaldiak aldaketa gehiago dakartza?

E9: Ba espero dut baietz. Poliki-poliki uste dut konturatzen ari garela horren garrantziaz.

Iratxe: Hori bai...

E9: Adibidez nire aurreko belaunaldiko emakumeak konturatu zirenean ez zirela desberdinak, eta desberdin tratatu zituztela, gu gero hasi ginen, zuek gehiago... eta orain falta zaie mutilei mugitzea.

Iratxe: Bai, pixkanaka-pixkanaka.

E9: Haiek ere parte-hartzea, bai.

Iratxe: Bai...